

OARSO2019

ERRENTERIA

Bigarren Aroa

54. Alea

Segunda Época

Número 54

Errenteria

2019ko uztailak 22

22 de julio de 2019



Errenteriako Udala

 **KULTURA**
kreaktiboia

ERRENDAZKIO BATZORDEA / COMITÉ DE REDACCIÓN

Txema Arenzana
Leonor García
Juan Carlos Jiménez de Aberasturi
Koldo Ordozgoiti
Josean Ruiz de Azúa
Mikel Zabaleta

José Ramón Cruz Mundet
Iñigo Imaz
Juan Miguel Lacunza
Elixabete Perez Gaztelu
Maite Ruiz de Azua

AZALA ETA KONTRAZALA / PORTADA Y CONTRAPORTADA

Ilustrazioa: “**Aspectos renterianos. La Alameda. Un baile dominguero**”

Egilea: Eduardo Lagarde Aranburu (Toledo 1883 - Donostia 1950).

Aurten betetzen da *Rentería* aldizkariaren lehen edizioaren mendeurrena, eta horregatik ekarri dugu 1926ko alean argitaratutako ilustrazio hau. Picasso, Juan Gris edo Vázquez Díazen eragin nabaria duen militar, arkitekto, dekoratzaile, marrazkilari, kartelgile eta umorista grafikoa honek Gipuzkoako hiriburuan eman zion hasiera bere karrera artistiko bereziari, hainbat erakusketa eta lehiaketetan parte hartuta. Bere binetetan Gipuzkoako bizimoduko eszenak irudikatu zituen, eta *La Voz de Guipúzcoa* eta *El Pueblo Vasco* bezalako egunkarietan argitaratu zituen lanak. Funtsezko erreferentzia izan zen XX. mendearen lehen berrogeita hamar urteetako euskal panorama artistikoan eta Gu taldea sortu zuen garai hartarako hainbat artista abangoardista bilduta.

Ilustración “**Aspectos renterianos. La Alameda. Un baile dominguero**”

Autor: Eduardo Lagarde Aranburu (Toledo 1883 - Donostia 1950).

Este año se cumple el centenario de la primera edición de la revista *Rentería*; por ello hemos traído a colación esta ilustración aparecida en dicha publicación el año 1926. Bajo la influencia de Picasso, Juan Gris o Vázquez Díaz, este militar, arquitecto, decorador, dibujante, cartelista y humorista gráfico, inició en la capital guipuzcoana una singular carrera artística, participando en numerosas exposiciones y certámenes. Reflejó en sus viñetas escenas de la vida guipuzcoana, que publicó en periódicos como *La Voz de Guipúzcoa* y *El Pueblo Vasco*. Figura esencial en el panorama artístico vasco de la primera mitad del s.XX, fue fundador del grupo Gu, en el que se agruparon diversos artistas vanguardistas de la época.

ESTABLEZIMENDU KOLABORATZAILEAK / ESTABLECIMIENTOS COLABORADORES

Erdigunea: Alamedako kioskoa, Bitxi kolore, Bixen kioskoa, Etxenike loteria, Hostoak kopia-denda, Maitexa estankoa, Mirentxu liburudenda, Morrongileta kioskoa, Josemi kioskoa, Xenpelar kioskoa, Xenpelar kultur denda, Zumardi kioskoa, Txusti.

Fanderia: Marian liburudenda.

Iztieta: Urtzi kioskoa, Razquin estankoa

Olibet: Rojas liburudenda

Argitarapena / Edita:

Errenteriako Udala / Ayuntamiento de Errenteria

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación:

Signos Publicidad & Comunicación, s.l.u.

Inpresioa / Impresión:

Gráficas Lizarra

L.G/D.L. SS-673-2019

ISSN: 2386-9070



Errenteriako Udala



Zutik, ezkerretik eskuinera / De pie, de izquierda a derecha:

Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi, Bernar Lemos Taberna,
José Manuel Ferradas Freijó, Elixabete Murua Mindegua,
Garbiñe Oyarbide Iurrettagoyena, José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta,
Isaac Palencia Caballero, Yosleidy Cristina Ferrera Cedeño, Miren Arbelaitz García,
Goizane Álvarez Irijoa, Eneko del Amo Jiménez y Eñaut Gracia Ibarra.

Eserita, ezkerretik eskuinera / Sentados, de izquierda a derecha:

Iñaki Ruiz Alonso, Itziar Ostolaza Galdós, Ion Collar Rioseco,
Maite Peña López, Aizpea Otaegi Mitxelena, José Ángel Rodríguez Medina,
Alazne Korta Zulaika, Joseba Echarte Martín y Maite Gartzia Ontiveros.

Agurra

Aizpea Otaegi Mitxelena

Errenteriako alkatea



Urteroko lana izan ohi dena, *Oarso* aldizkariaren hitzaurrea idaztea, lan berria da niretzako. 2019. urteko *Oarso* aldizkariaren agurra da alkate gisa idaztea egokitu zaidan lehena eta alkate izendatu ondorengo lehendabizikotarikoa lana.

Aurtengo ale honek 46 artikulua jasotzen ditu orotara. Horietatik, 20 euskaraz. Horietatik, 15 emakumeek idatziak. Oro har, 2018an baino bi artikulua gehiago idatzi dira euskaraz eta bi artikulua gehiago izan dira emakumeek idatziak.

Badakit azken urteotan lan handia egin dela euskaraz idatzitako artikuluek eta emakumeek idatzitakoek toki handiagoa izango dezaten urtez urte herriaren kronika jasotzen duen aldizkari historiko honetan. Eta bistan da, egindako lanak bere fruituak eman ditu. Horretan jardun direnak zoriondu nahi ditut, beraz!

Gaitegiari dagokienez, ohi bezala, oso anitza da aurtengo alea ere. Orotara poliedro bat osatuz, gure iraganaz, orainaz eta, nola ez, etorkizunaz mintzatuz, gure herria zer den ederki erakusten duten artikulua dira. Hala ere, aurtengoaz zerbait nabarmentzekotan ageri diren ospakizun eta efemeride bereziak aipatuko nituzke.

Ale honetan topatuko ditugu, jarraian aipatzen diren urteurrenen inguruko artikulua: Ponti-

ka auzo "berriaren" 50. urteurrena; gure Xanti eta Maialen maiteen 100. urteurrena; Xenpelar bertsolaria hil zeneko 150. urteurrena; Gazte Kemena abesbatzaren 25. urteurrena; "Rentería" aldizkaria sortu zeneko 100. urteurrena; Errenteriak Hiri Gutuna jaso zueneko 700. urteurrena; eta, azkenik, Vicente Vadillo "Francis" erail zuteneko 40. urteurrena.

Azken alea argitaratu denetik hildako herrikide erreferenteak gogora ekartzea ere ohikoa izaten da eta, kasu honetan, berriki hil diren lau herrikideri buruzko artikuluak aurki ditzakegu.

Juanmi Gutierrez zine zuzendaria mintzagai duten hiru artikuluren bidez bere obra eta bizitza hobeto ulertzeko aukera dugu. Rafa Bandresek ere badu bere tartea, hain zuzen ere, *Oarso* aldizkariarekin izandako harremanaz mintzo dena. Jose Luis Ansorenaren bizitza eta ekarpena beste hiru lanetan jaso dira eta, azkenik, Iztieta auzoan urte luzez jardundako Anselmo Arrieta apaizari buruzkoa ere jasotzen du aldizkariak. Zalantzarik gabe, joan zaizkigun horiek gure memorian gera daitezen garrantzitsua da lan horiek hemen argitaratu ahal izatea.

Bukatzeko, herrian edo inguruan antolatzen diren literatur lehiaketa desberdinetan saritutako lanak argitaratzeko ere baliatzen da aldizkaria. Batetik, IX. Mariasun Landa Sarietan irabazle suertatu diren lanak ditugu.

Aurtengoan, Errenteriako Mugimendu feministak gure herrian izan duen historiari erreparatzen dio lan batek eta, besteak aldiz, baserri munduko emakumeei eta merkatuan egin duten lanari. Bestetik, EHGAMek (Euskal Herriko Gay-Lesbianen Askapen Mugimendua) seigarrenez antolatu dituen LGTBI literatur lehiaketaren lan irabazlea. Azkenik, Ereintzak antolatzen duen ipuin-lehiaketaren baitan, Josean Arbelaitzi eskainitako sarian jaso duen 2018ko lana.

Aleaz gozatuko duzelakoan, jaso ezazue agur bero bana.

Gora gure Madalenak!!

Saluda

Aizpea Otaegi Mitxelena

Alcaldesa de Errenteria

Esto que suele ser una tarea de todos los años, escribir el saludo para la revista *Oarso*, es un quehacer nuevo para mí. El saludo de la revista *Oarso* de 2019 es el primero que me toca hacer como alcaldesa, y una de las primeras tareas que realizo desde mi nombramiento.

En esta edición, se publican un total de 46 artículos. 20 de ellos en euskara. 15 escritos por mujeres. Con ello, en esta edición contamos con dos artículos más en euskera que en la edición de 2018, y con dos más escritos por mujeres.

Me consta que estos últimos años se ha realizado un gran esfuerzo para que los artículos escritos en euskara y aquellos cuya autoría sea de mujeres cuenten con mayor presencia en esta revista histórica que recoge la crónica anual de nuestro pueblo. A la vista está que el trabajo realizado ha dado resultado, por lo que, mi enhorabuena a quienes lo han promovido.

Si nos fijamos en la temática, hemos de decir que, como es habitual, los temas son muy diversos. Son artículos que, en su conjunto, conforman un poliedro, que a través de miradas sobre su pasado, presente y, cómo no, sobre su futuro, nos muestran muy bien lo que es nuestro pueblo. No obstante, en esta edición cabe subrayar el lugar que ocupan las efemérides y aniversarios.

En este número se recogen las siguientes: el 50 aniversario del barrio “nuevo” de Pontika; el centenario de XantiyMaialen; el 150 aniversario de la muerte del bertsolari Xenpelar; el 25 aniversario del coro Gazte Kemena; los 100 años del nacimiento de la revista “Rentería”; los 700 años de la Carta Puebla; y, finalmente, el 40 aniversario del asesinato de Vicente Vadillo “Francis”.

Por otro lado, en *Oarso* siempre encontramos artículos que hacen referencia a las personas significadas de nuestro pueblo que han fallecido desde la publicación del número anterior. En este caso, se refieren a cuatro personalidades.


Los tres artículos sobre Juanmi Gutiérrez nos permiten conocer mejor su obra y su vida. Un artículo sobre Rafa Bandrés nos acerca a su relación precisamente con la revista *Oarso*. Encontraremos referencias a la vida y la aportación de José Luis Ansorena en tres artículos y el que fuera cura en el barrio de Iztietia, Anselmo Arrieta, también tiene su lugar a través de un artículo. Sin duda, es importante que se puedan publicar en la revista estos artículos que nos ayudan a mantener en nuestro recuerdo y nuestra memoria a estas personas.

Para terminar es importante recordar que nuestra revista sirve para que vean la luz

trabajos premiados en diversos concursos literarios de nuestro entorno. Por un lado, encontraremos los trabajos ganadores de la IX. edición de los premios Mariasun Landa. Junto con un trabajo que mira a la historia del movimiento feminista en nuestro pueblo, otro que nos habla del papel de las mujeres en los caseríos y en el mercado como vendedoras. Por otro lado, encontraremos el artículo premiado en la sexta edición del concurso literario LGTBI que organiza EHGAM (Movimiento de Liberación Gay-Les de Euskal Herria). Y, finalmente, se recoge un cuento premiado en 2018, en la sección dedicada a Josean Arbelaitz, que anualmente organiza Ereintza.

Con la ilusión de que gozaréis de esta edición, recibid un cordial saludo.

Gora gure Madalenak!!



Errenteriako Udala

Xenpelarren 150. urtemugako gogoetak

Julian Albistur Aranburu

Juan Frantzisko Petriarena Berrondo, Xenpelar bertsolaria bezala ezagunagoa, 1835eko urtarrilaren 12an jaio zen Errenterriako Senperelarren, Lehen Karlistaldian (1833-1839).

Biharamunean, Oiartzunen bataiatu zuten. Bizitza labur, baina emankorraren ostean, 34 urterekin, 1869an hil zen, baztangak jota. Aurtengo abenduaren 8an, 150 urte beteko dira utzi gintuenetik. Izurrite gaizto hark, ordea, ez zuen erabat eramán. Errenterian eta Euskal Herri osoan bizirik diraute hark utzitako bertsoek eta bere doinuak oraindik erabiltzen dira bertsolaritzan. Herritar batzuk haren bertso ezagunenak buruz kantatzeko gai dira. Beraz, herritarron memorian bizirik dagoenez eta mende t'erdi igarota, une egokia dirudi azken 150 urteotako historiari errebasoa emateko, azaletik eta modu apalean bada ere, bere garaia abiapuntu bezala hartuta. Atzera begiratzea ona baita nondik gatozen jakiteko. «Betroiarena», Xenpelarren 9 puntuko doinu mitikoak bezala, artikulu honek ere 9 atal ditu:



XENPELARREN BIZILEKUEN XARMA

1835eko Senperelarreko eraikin xume hura, gero nagusi askoren eskuetatik pasa ondoren ia suntsituta egon arren, egungo nagusiak eraberritu zuenetik oso etxe dotorea da, berdegunez josita dagoena inguru paregabea. Naturaz gozatzu bizitzeko leku atsegina da. 1859an Maria Josefa Retegirekin ezkonduz geroztik, Xenpelarrek bere bizitzako azken 10 urteak igaro zituen etxeak, azken hatsa bertan eman zuelarik, oraindik zutik dirau. Madalen kaleko «Xenpelar Etxea» oso estimatua dugu herrian. Hitzaldiak, erakusketak eta beste ekitaldien artean, bertso-saioak ere egiten dira bertan, garai hartako kutsua mantendu nahian.

Etxe horretatik gertu dagoen Foru plazan (Foruen defendatzaile sutsua izan zen Xenpelar), herdoil iraunkorreko altzairuzko eskultura eder bat eskaini zion herriak: «Xenpelarren fruituak», Gotzon Huegun artistak sortua eta 2014ko urtarrilaren 12an inauguratua. Zuhaitz irudiko obra horrek haren bertso ezagunen izenburuak gordetzen ditu bere hostoen artean. Herritarrontzat gune maitagarria bihurtu da.

Xenpelarren jaiotetxea eraberritua



BIZTANLERIAREN HAZKUNDEA

Erreterian 1835ean, Xenpelar jaio zen garaian 1.600 pertsona bizi ziren, gutxi gorabehera; 1869an, hil zenean 3.000 inguru ziren; 1900ean, biztanleria 4.081era iritsi zen; 1950ean 12.784ra igo zelarik; 1977an goia jo zuen 48.586ra iritsi baitzen; ondoren beherakada hasi zen eta 2000ren amaieran 39.200era jaitsi zen. Azken 18 urteotan kopurua horren inguruan egonkortuta, 2018an 39.355 biztanle ziren.

Pello Zabaleta bertsolariak (1896-1967), 1946an «Oraingo Erreteriarri» jarritako bertso-sortan, biztanleriaren hazkundeaz kexatzen bazen ere, arrazoi zuen arren, gorakada basatia hurrengo hamarkadetan gertatu zen, frankismoaren azken urteetan, batez ere 1960ko hamarkadatik aurrera, etxeak kontrolik gabe eraikiz inguruko berdeguneak desagertu arte, industrian lan asko zegoen garaian. Espainiako herrialdeetatik (Andaluzia, Extremadura, Gaztela...) lan bila etorritako jende uholdearen bizileku bihurtzeko. Iztieta, Alaberga, Gabierrota, Olibet, Agustinak, Galtzaraborda, Beraun, Pontika, Kaputxinoak eta Fanderia auzoak ikusita, urteotako herria zeharo aldatua dago. Olibeten badaude 14 solairuko etxeak.

Azken urteotan atzerrian, mundu zabaleko herrialde askotan jaiotako jendea etorri da herrira, mundua globalizatu egin baita. Egungo datuen arabera, 39.355 biztanle horietatik 9.715 (%24,69) herrian jaiotakoak dira; 3.428 (%8,71) atzerritarrak, munduko herrialde askotan jaiotakoak. Besteak hauek dira: Gipuzkoatik etorriak %43,16; Euskaditik etorriak %1,06 eta Espainiako Autonomia erkidegoetatik etorriak %22,39.

Bitxikeria modura, emakumezkoen kopurua handiagoa da gizonezkoena baino. Erretiratuen proportzioa handia da: %23,3koa eta 100 urtetik gorako pertsona batzuk bizi dira herrian. Bestalde, azken urteotan hiltzen den jendearen kopurua handiagoa da jaiotzen diren haurrena baino. Herriko biztanleria zahartzen ari da eta datu hauek joera garbia adierazten dute aurrera begira. Biztanleria mantentzeko, etorkinen beharra izango dugu datozen urteetan.

EUSKARAREN BEHERAKADA

Antzinan hainbeste bertsolari eman duen herriak, 1936-1939ko gerra zibilaren ondoren, Francok ezarritako diktadurapean euskararen erabilerak beherakada handia izan zuen,



Amuriza hizketan Xenpelar Etxean

zenbait lekutan debekatua baitzegoen. Biztanleriaren etengabeko hazkundeak ere, asko kanpotarrak izanda, euskararen erabilera oztopatu egin zuen, gaztelania etengabe nagusitzen joan baitzen kaleetan nahiz lantegietan. Baserriak salbuespen eta salbatzaile bihurtu ziren. Orduko agintariek ez zuten interesik kanpotarrak euskalduntzeko eta integratzeko. Haien helburu bakarra euskaldunak espainoltzea zen, euskara eta gure kultura zapalduz. Eskoletan euskara debekatua zegoen baserriarrentzat ere, nahiz eta umetan gaztelaniaz ez jakin. Etxean eta auzoan, ordea, baserriarrak euskaraz bizi ziren.

Diktadurak kalte handia eragin eta atzerapena ekarri bazuen ere, euskal kontzientzia pizteko balio izan zuen. Horrela, talde txiki batek 1963an ikastola sortu zuen, haurrei ama hizkuntzan irakasteko, frankismoa puri-purian zegoen garaian. Orduko egoera politikoa aurkakoa izanda, guraso gehienentzat errazena euren haurrak espainiar ereduako eskoletara eramatea zen, agintariek ezarritakora.

1968ko Arantzazuko Batzarrean, euskalki ezberdinak kontuan hartuta, Euskaltzaindiak «Euskara batua» deiturikoa sortu zuen oinarri bezala, batez ere idazteko. Azken 50 urteotan hizkuntza berri eta egokitu egin bada ere, funtsean, Xenpelarren hizkuntza bikain hura indarrean dagoela esango nuke, formak zerbait aldatu badira ere. Aldaketaren bultzatzaile nagusietakoa Koldo Mitxelena, herritarra eta hizkuntzalari aparta izan genuen. Halere, aldaketaren aurka euskaldun askoren artean iskanbilak sortu ziren. Mende erdia igaro ondoren, erabaki garrantzitsua izan zela esango nuke, gure hizkuntzak aurrera jarrai dezan.

HEZKUNTZA ETA ERLIJOA

Gaurko gaztetxoak, zorionez, 7 urterekin ez dira morroi joaten Xenpelar joan zen gisara;

10 urterekin oteketan ere ez dira ibiltzen, hura ibili zen bezala. Orain, ia jaio orduko eskolan hasi eta derrigorrez 16 urtera arte ikasten jarraitzen dute. Gehienak ofizio bat ikasteko 18-20 urtera luzatuz. Beste askok 22-24 urterekin unibertsitatean karrera bukatzen dute. Hortik aurrera ikasten jarraitzen dutenak ere badira, bigarren karrera, doktoretza edo masterra lortu arte. Aparte, bizpahiru hizkuntza ikasita, ingelesa ia beharrezkoa bihurtu da. Pixkanaka, eskola publiko nahiz pribatu gehienetan euskarazko eredu lehena aukera bihurtu da. Irakaskuntzan, maila guztietan, unibertsitatea barne, euskara batua edo estandarra erabiltzen da eta ikasketak euskaraz egiteko aukera badago. Testu-liburuak eta literatura ere euskara arautuan sortzen dira. Bertsolaritzan ere hedatua dago, baina euskalkiak ere erabiltzen dira.

Xenpelar fededuna zen arren, garai hartako gehienak bezala, azken 50 urte hauetan fedea beharrezkoa handia izan du. Ez dut uste soilik moda kontua denik, gizartearen pentsamolde aldaketa baizik; ondorioz, sinismena ahuldu egin da. Bestalde, bokazioak bakandu egin dira eta apaiztegiak hustu. Orain, teoriarik, Estatu akonfesionalean bizi garenez, erlijio askatasuna bermatua dago. Elizara jende gutxi joaten da; bereziki, gazteen kasuan oso nabarmena da. Elizak, erakunde bezala, gazteak ez baditu erakartzen, nire ustez, oker dabil, etorkizuna euren esku baitago. Gizartean aldaketak abiada bizian doazen heinean, Eliza zaharkituta gelditu da. Bestalde, mundu globalizatu honetan, kanpotarrek euren kultura eta erlijioekin jarraitzen dute; adibidez, islamiarrek euren bilgune propioa dute.

BERTSOLARITZA

Xenpelarren ondoren herrian jaiotako beste bertsolari batzuk izan ditugu. Ezagunenak hauek dira: Joxe Migel Salaberria Iraola, Panderi-I (1838-1905), Joakin Mari Jauregi

Salaberria, Panderi-II (1844-1921), Leandro Bixente Salaberria Astibia (1845-1909), Joxe Mari Elizegi Berasarte, Frailia (1859-1925), Juan Krutz Zapirain Etxeberría (1867-1934), Joxe Zapirain Aranburu (1873-1957), Joxe Mari Berra Telleri-txiki (1875-1944), Juan Zabaleta Lekuona (1894-1950) eta Pello Zabaleta Lekuona (1896-1967). Aipatu gabe ezin utzi Juan Frantziskoren iloba, Joxepa Anttoni Aranberri Petriarena (1865-1943), osaba hil zenean 4 urteko umea zena. Garai hartan bertsolaritza gizonezkoen kontua izanik, emakume bertsolari erreferente bezala hartu beharko genuke.

Hernanin jaio eta Erreterian bizi izandakoak ere badira: Joxe Manuel Lujanbio, Txirrita (1860-1936) eta bere lehengusua Juan Jose Lujanbio Zabaleta, Saiburu (1874-1954). Txirrita handiak 1936ko II. Txapelketa Nagusia irabazi zuen eta txapeldun bezala, Goizuetan gaixotu ondoren Altzan hil zen, 76 urte betetzear zegoela. Ondoren gerra zibila hasi zen.

Xenpelar Bertso Eskola 1987an sortu zen, herriko hiru bertsozaleren ekimenez AEK-k lagunduta, herrian bertsolaritza ia desagertuta zegoen garaian; 32 urteko ibilbidea eginda, herrian bertsolaritza suspertzen ari da. Euskal Herri mailan gaur egun bertsolaritzak hartu duen indarra duela 50 urte pentsaezina zen, ia desagertzearekin egon eta gero. Teknikoki oso maila altua hartu du, azken hamarkada hauetan, Bertsozale Elkarteak eta bertso-eskolek egindako lanari esker, kultur mailan jauzi handi bat eman ondoren. Xenpelar harrituko litzateke, berpiztuko balitz. Baita Joxepa Anttoni, bere iloba ere, orain plazetan kantari zenbat emakume bertsolari dabiltzan ikusita. Zorionez, genero ikuspegitik, berdintasuna nagusitu da. Gainera, egungo Euskal Herriko txapelduna Maialen Lujanbio da. Bi aldiz lortu du txapela hernaniar emakume trebeak.

EKONOMIAREN BILAKAERA



Guillermo Niessen fabrika

Antzinako Erreteria, baserri ugari herria, gaur egun aldatua dago, haietako batzuk desagertu baitira azken hamarkada hauetan. Oraindik ehun pasatxo zutik daude: Añabitarte, Argorri, Barin, Baringarate, Egiluze, Listorreta, Txirrita, Xenpelar, Zamalbide eta abar. Baina baserrietik oso jende gutxi bizi da, gehienak bizileku bihurtu baitira.

Merkataritza, oro har, ez dabil osasuntsu. Hiriko denda tradizionalak desagertzen ari dira, erosteko ohitura aldaketan araberak. Orain erosketak inguruko merkataritzagune handietan egiteko joera dago. Internet bidez ere, gero eta gehiago. Aparte, gizarte modernoan bizi garenez, mota guztietako zerbitzuak daude: aholkularitzak, aseguruak, abokatuak, kiroldegiak, haurtzaindegiak, bidaiak eta abar. Zerbitzu berri hauetan jende ugari lan egiten du.

Xenpelarren garaian hasi zen industrializazioak garrantzi handia izan zuen, lanpostu izaugarri sortuta herriari bultzada handia eman baitzion. 1902an, adibidez, 1.100 langile inguru enplegatzen ziren industrian, herriak 4.400 biztanle inguru zituen garaian. XX. mendeak aurrera egin ahala, ordea, beherakada izugarria izan zuen, garai hartako ia enpresa denak desagertu baitziren. Berriak sortu badira ere, egun ez dago bertako langileentzat nahikoa lanpostu. Oraingo industria hiritik kanpo dago,



La Ibérica. Olibet gaileta-fabrika

Industrialdeetan: Masti-Loidi, Txirrita-Maleo, Egiburuberri... Hona hemen, aipatutako industrializazio garaiko enpresen zerrenda, 1845 eta 1914 artean sortutako esanguratsuenak. 18 hauetatik, oraingo Papresa paper-fabrikak herrian jarraitzen du eta egungo ABB Niessen Oiartzunen dago. Beste guztiak desagertu ziren:

SOCIEDAD DE TEJIDOS DE LINO.

1845-1973. Lihozko oihalak. Fabrika Handia bezala ezaguna. Xenpelarrek bertan lan egin zuen.

SALVADOR ECHEVERRIA Y CIA.

1855-1922. Lihozko oihalak.

SORONDO PRIMOS.

1857-1868. Lihozko oihalak.

GAMÓN HERMANOS.

1858-1880. Lihozko oihalak.

SATURIO Y TIMOTEO ARIZMENDI.

1858-1891. Larru-ontzea.

REAL COMPAÑÍA ASTURIANA.

1859-1978. Arditurriko minerala urtuta beruna lortzen zuen. Gero zinkarekin aritu zen.

FÁBRICA DE HARINA VIUDA DE LONDAIZ.

1863-1984. Irina. Fanderiako errota.

LA IBÉRICA.

1886-1964. Olibet gailetak.

FABRIL LANERA.

1889-1980. Artileak, oihalak, tindaketak eta "Baionako txalekoak".

VASCO-BELGA.

1890ean sortua. Papergintza. 1902an La Papelera Española eta azken urteotan PAPERESA.

FABRIL IBERO-BELGA.

1892-1914. Tapizgintza eta ehunak.

LA MARGARITA.

1892-1909. Likoreak. 1899an Pasaian Henry Garnier.

FÁBRICA DE ALBAYALDE DE LA R.C.A.M.

1894-1978. Pinturak eta minio.

LA EUSKARIA.

1897-1903. Sagardo aparduna.

MANUFACTURAS DE YUTE.

1900-1920. Jute txirikordatua eta alpargatak.

MÁRMOLES SAN MARCOS.

1902-1914. Harrobia eta marmolen lanqueta tailerra.

FÁBRICA DE HARINA UGALDE Y CIA.

1903-1920. Gari-irina. Gero izena aldatu zuen.

FÁBRICA ELECTROTÉCNICA GUILLERMO NIESSEN.

1914an sortu zena. Material elektroteknikoak eta bakelitzako piezak. Azken urteotan Oiartzunen ABB NIESSEN.

GARRAIO ETA KOMUNIKAZIOAK

1828an eraikizuten Errenteria eta Astigarraga Bentak elkartzen zituen errepidea, Oiartzun eta Astigarraga artekoarekin lotuz. Herria industrializatzen joan zen heinean, azpiegiturek garapen handia izan zuten. 1847an eraikitako Andoain-Irungo Bentak, Errepide Nazional berriak (N-I), egungo Biteri kaletik pasata zeharkatzen zuten hirigunea. 1867an Errenteria-Lezo errepidea eraiki zuten. Oraingo Nafarroa Etorbidea, 1915eko sahiesbidea da.

Madril-Irun, oraingo ADIF/RENFE-ren, Norteko trenbidearen obrak 1864an amaitu baziren ere, 1863an Donostia-Irun zatia eta Lezo-Errenteria geltokia inauguratu ziren; Lezoko lurrean bada ere, mugan daukagu. FEVE/Topoa, oraingo Euskotren Trena, 1912an inauguratu zuten. Gaur egun hiru geltoki eskura dauzkagu herrian: Fanderian, Erdialdean eta Galtzarabordan. Autobideak herria zeharkatzen du.

Autobus zerbitzuak ugariak dira: Pasai Donibane-Donostia, Oiartzun-Donostia, Beraun-Donostia, Hondarribia-Donostia, denak herrian zehar geltoki ugariarekin. Errenteria oso ongi komunikatua dago.

AZKEN URTEOTAKO LAN-ESKASIA

Azken 50 urte hauetan, bizimodua asko aldatu da. Orduan ez bezala, orain lanean hasterako, batzuek 18-20 urte beteak dituzte; beste batzuek 25-30 edo gehiago. Badira 35 urterekin lanean hasi gabeak ere, gurasoen babesean bizi direnak. Hamarkada batzuetan lan asko izan badugu ere, azkeneko hau oso gogorra izan da, krisi ekonomikoaren eraginez.

Oro har, Xenpelarren garai bano askoz hobeto bizi bagara ere, gaur egun gazte askorentzat prekarietatea da nagusi. Krisiak eraginda lantegiak ixten direnean, helduek nekez aurkitzen dute lan duinik. Lanean

arazorik gabe dabilen jendeak, ordea, itxuraz bizi zeko aukera dauka. Batzuk eskiatzera joaten dira neguko asteburuetan; gehienak udaran oporretara, ahal bada atzerrira edo beste probintzietara, Euskal Herriko txoko asko ezagutu gabe ere. Afrikara, Amerikara, Txinara edo Australiara joatea arrunta da gaur egun. Tamalez, beste muturrean, eskaleak eta kale gorrian gelditutakoak ageri dira, gizarte-bazterketaren ondorioz.

Biztanlegoaren erdiak autoa daukagu; nahiko arrunta da etxe bakoitzean bi kotxe edukitzea egunerokotasunerako. Teknologiaz topera gabiltza: telebista, ordenagailu, telefono mugikor eta abarrekin. Gazteak, batez ere, mugikorrik gabe ezin dira bizi, mezuak bidaliz nonahitik nonahiri. Xenpelarren ez luke ulertuko mendekotasun berri hau.

EGOERA SOZIOPOLITIKOA

Frankismoan eta ondorengo trantsizioan nahiz demokrazia garaian, Errenteria herri oso borrokalaria izan da, izugarri sufritutakoa. Politikan eta sozial mailan oso konprometitua. Besteak beste, 1977an eta 1979an, istilu larriak gertatu ziren herrian. Bestalde, krisialdi ezberdinen ondorioz enpresa ugari desagertuta, langabezia-tasa oso altuak ja-sandako herria da, Oarsoaldea bezala.

Azken urteotan egoera politikoa baretu da eta pixkanaka normalizatzen joan den heinean, giroak hobera eginda, egungo Errenteria, herri anitza bihurtu da, multikulturala, mila kolorekoa, jatorria, hizkuntza, kultura, ideologia, erlijioa eta abar kontuan hartuta. Duela 40 urteko egoerarekin zerikusirik ez dauka, are gutxiago Xenpelarren garaiarekin.

Sozialki urratsak emanez, elkarbizitza hobetzen ari da. Askatasuna, berdintasuna, aniztasuna eta antzeko hitzak modan daude, eta udalak lanean dihardu horiek bermatzeko urratsak

ematen. XXI. mende honetan, pixkanaka gizarte hobe bat lortzea da helburua. Halere, asko dago egiteke.

Herri bizia ere bada, oso dinamikoa, kultura mailan mila ekitaldi antolatzen direlarik, Atlantikaldia, Musikaste, kontzertuak, dantza, hitzaldiak... Eragile ugariaren ekinez: Kultura, Eresbil, Andra Mari eta Landarbaso abesbatzak, Errenteriako Musika Kultur Elkartea, Udal Txistu Banda, Ereintza Elkartea, Kukai Dantza, Xenpelar Bertso Eskola, besteak beste.

Bukatzeko, hauek dira XX. eta XXI. mendeko kapitalismoak ekarri dizkigun aurrerapenak, desorekak, kontraesanak, atzerapenak eta injustiziak. Halere, ezin gintezke kexatu, munduko leku onenetarikoan bizi garelako. Munduan zehar, herrialde askotako miseriak ikusita, zorte handia dugula esango nuke.



¡Allá películas!

Jesús Gutiérrez Pérez

Tengo suscrito con mi operador telefónico un programa que me permite grabar películas. Puedo almacenar unas ciento setenta y me duran un mes desde que las grabo. Luego las voy viendo a mi comodidad y grabando otras nuevas. Salgo poco de casa pero me veo un par de películas cada día.

Recuerdo que en mis años mozos vi una película filmada en Pasai Donibane. Se titulaba algo así como "También hay cielo sobre el mar". Era en blanco y negro como todas las de entonces. La vimos todo el mundo porque salía nuestro siempre entrañable Pasajes de San Juan, e incluso personas conocidas de Errenteria como figurantes.

En concreto me acuerdo de Joaquín Olascoaga, tío de mi amigo Inashito. Por lo visto iba paseando con un colega por la calle, a los cineastas les parecieron buenas figuras, les dieron un remo a cada uno y les dijeron ¡plantaos ahí!

Pero lo que más recuerdo de la película era el cabreo de la gente cuando los protagonistas subían por una escalerita de San Juan y salían a un rincón típico de San Pedro. La sala se venía abajo de la pataleta. ¡Qué manera de engañarnos! (Entonces no había todavía photoshop).

La verdad es que eso no tenía ninguna importancia para el argumento, pero a nosotros nos repateaban las tripas.

Y yo me pregunto ¿la película debe ser fiel al paisaje? Chi lo sa! He encontrado abundantes ejemplos de todo.



Remeros ocasionales en Pasai Donibane.

Precisamente he visto hace poco "Gernika bajo las bombas". Nada más empezar la película se ve un miliciano en la plaza de los Gudaris de Hernani. ¡Joño! ¡Si he vivido 20 años en esa Noble, Leal e Invicta Villa (sólo le gana en títulos la Muy Noble, Muy Leal, Muy Valerosa y Muy Siempre Fiel Ciudad de Fuenterrabía, como me recordaba a menudo mi amigo Javier de Aramburu) y eso es como mi casa! Se ven las escaleras de subida a la iglesia y los arcos del ayuntamiento. Esta estampa se repite varias veces pero según la película estamos en Gernika.

Pero no se terminan aquí las sorpresas porque en estas reconozco la cuesta que baja por los WC de Oiartzun. Al fondo a la izquierda se ve



Rincón de Hernani que aparece en "Gernika bajo las bombas".

la esquina del ayuntamiento y a la derecha la barandilla de la casa Zabale, donde mi amigo Iontxu tuvo una tienda de electrodomésticos. ¡Qué tiempos!

Y no solo eso. La escalera de subida a la iglesia de junto a los citados WC se convierte casi en protagonista de la película, todos suben por ella, todos bajan por ella. Debe estar en el centro de Gernika. En una de las tomas se ven tenderetes de feria. ¡Lo justo! El día del bombardeo era día de feria en Gernika.

He visto también "La Reina del Chantecler". Hubo muchos figurantes de la zona. Mi recuerdo era que la película no era muy allá pero la grabé por ver a Goñi de Oyarzun, muy conocido, al que se le veía oyendo misa en la parroquia.

Pero me ha gustado. Me he dado un baño de satisfacción. La protagonista viene a San Sebastián y se ve San Sebastián: el Monte Igeldo, La Isla, el Gran Casino, La Concha. En fin, el marco incomparable. Se entera de que hay fiestas en Oyarzun (ahora Oiartzun) y va allí. Y se ve la plaza, la iglesia de San Esteban de Lartaun, las fiestas. Partidos de pelota en los arkupes del ayuntamiento, bailes, gentío en la plaza, autenticidad.

Se ven romerías en montañas que no consigo identificar, pero huelen al aire de Oiartzun. Y me gusta.



Por estas escaleras de Oiartzun se sube a la iglesia de Gernika.

Otro día me llevo una sorpresa. Una película americana titulada "Noche y Día". protagonizada por Tom Cruise y Cameron Diaz. De espionaje y persecuciones increíbles. Saltan de Estados Unidos a Sevilla. Se ve la Giralda y calles típicas que muy bien podrían ser de Sevilla. Por una calle aparece una banda de música. Los músicos van ataviados con pantalón y camisa blancos, faja roja a la cintura y pañuelo rojo al cuello. Van tocando (cosa lógica en Sevilla) "Uno de enero, dos de febrero, tres de marzo, cuatro de abril..." En un momento en que unos diez coches persiguen por las calles a una moto en la que cabalgan los protagonistas, se cruzan con un encierro (confieso que he visto películas en las que se cruzan con un entierro, pero esto es demasiado).

Grabo una película por el argumento que es algo así como "Una viuda republicana ingresa en la cárcel de mujeres de Saturrarán (Bizkaia)".

Yo he vivido dos años en el seminario de Saturrarán hace 70 años de nada. Entonces era Gipuzkoa, claro, era un barrio de Mutriku (entonces Motrico) pero ahora debe ser Bizkaia. No solo se llevan los vizcaínos futbolistas guipuzcoanos sino también playas. (Los futbolistas no me importan tanto porque estoy vacunado contra el fútbol, pero las playas...). En periódicos de San Sebastián he leído varias veces que la cárcel de Saturrarán estaba en Bizkaia y nunca lo ha desmentido nadie.

El Seminario de Saturrarán fue ocasionalmente cárcel de mujeres cuando la guerra, pero antes fue seminario y antes aún hotel-balneario. Nosotros lo estrenamos como seminario después de la guerra, en octubre de 1944. En la mitad de la playa quedaban restos de una alambrada que había habido desde el monte hasta el mar, media docena de estacas medio colgando de alambre de espino.

Uno de mis recuerdos indelebles es que en invierno toda la arena de la playa se iba a la de Ondárroa que se desbordaba de arena cuando no hacía falta y quedaban en Saturrarán grandes pedruscos que dificultaban el paseo. Y en verano volvía la arena a Saturrarán que tornaba a ser una hermosa playa de arena.

Seguramente esa apropiación obsesiva de Bizkaia por la playa de Saturrarán es por eso. Porque la arena es vizcaína, venida de Ondárroa.



Plaza auténtica de Oiartzun de "La Reina del Chantecler" y de todas las reinas y princesas que en el mundo han sido.

Por cierto que cuando en la hermosa canción "Boga, boga!" cantamos eso de "zure plai ederrá" estamos cometiendo una hipérbole o ejerciendo de bilbaínos consumados porque era una playita de nada, un rinconcito de playa. La de Saturrarán, aunque hermosa, era peligrosa y traidora. La resaca te podía meter

mar adentro y verte mal para salir. Fuimos testigos de varios momentos de peligro.

Arriba de Saturrarán, a un kilómetro de Ondárroa, en la carretera, había una casa ¿de miqueletes? ¿de camineros? que estaba en Gipuzkoa. Allí mismo estaba el límite con Bizkaia. Un poco más abajo hacia Mutriku había una casita llamada Villa Osa, que debía ser de un boxeador del mismo apellido.

Pero el recuerdo más vivo, vívido y no sé qué más era el ruido de las olas.

— Chas... chas... chas...

Siempre igual y siempre distinto. La primera noche que pernoctamos allí la pasamos en blanco oyendo el continuo chas... chas... chas...

A la mañana nos preguntábamos unos a otros:

— ¿Has dormido algo?

— ¡Ni patata!

La noche siguiente dormimos todos como troncos y el chas... chas... chas... de las olas era como la mano que mece la cuna y nos ayudaba a dormir. Tanto es así que al ir a casa de vacaciones echábamos de menos el ruido de las olas.

Quedaba algún resto del antiguo balneario. Por ejemplo en un edificio que creo que se llamaba Villa Capricho había en el suelo sumideros y huellas de tinas que habían servido de acuarios.

Había varios edificios diseminados. San Pelayo, que se usaba para tender la ropa lavada. El salón de columnas, que era recreo cubierto en días de lluvia y salón de actos. Encima estaban la sala de estudio y las clases. El edificio del seminario era comedor, capilla y dormitorio. Había hasta una casita que ocupaban los

carabineros (o guardias civiles, no sé, creo que por entonces fue la reunificación) que también era del seminario y no tenía ni cocina, hacían el fuego en el suelo y el humo escapaba por entre las tejas.

¿Y las rocas?

Había al fondo de la playa unas rocas de silueta inconfundible, tentación de innumerables pintores y allí empezaba lo que llaman ahora pomposamente la rasa mareal. En marea baja quedaban atrapados pececillos en pequeños pozos, quisquillas, erizos de mar, pulpos.

El primer año hasta recogíamos mercurio.

Quedó varado entre las rocas un cortaminas (era la segunda guerra mundial) que parecía un pequeño torpedo con aletas. Y alguno de Ondárroa que sabía que llevaba mercurio dentro, le desenroscó la cola y lo extrajo. Pero debió tropezar en las rocas y se le cayó algo que quedó desparramado en gotas microscópicas. Nosotros íbamos juntando las gotitas con la valva de un mejillón y formando gotas más grandes que metíamos en un tintero.

Nos lo pasábamos tan bien que desde el seminario nos tocaban la campana después del recreo para ir al estudio y ni nos enterábamos.

Había también en el edificio central del seminario una serie de retratos de los claustros de profesores de antes de la guerra. Aparecía en ellos don Roberto de Aguirre que era en aquellos momentos nuestro párroco de Errenteria y don Jose Miguel de Barandiarán, el sabio ataundarra, del que contaban que hacía experimentos en la playa para obtener electricidad de las olas. El aparato funcionaba mal que bien, pero cuando llegaba la ola fuerte, que no recuerdo si era la 18 o la 19, se desbarataba el invento.

Saturrarán, cuando hacía sol era el lugar más bonito del mundo. Las visitas se quedaban asombradas.

— *¡Qué bien vivís aquí!—, nos decían.*

Pero cuando llovía era el sitio más triste. Entonces el comentario era:

— *¿Cómo podéis vivir aquí?*

Incluso, ya que hablamos de películas, se rodó allí parte de “Las Inquietudes de Shanti Andia” sobre la obra de Pío Baroja. Recuerdo que tenían una maqueta en escayola de un faro. Filmaron a una mujer con una especie de camión que al correr por la playa enseñaba unos muslos blancos, ebúrneos, motivo por el cual se acabó traumáticamente el recreo y nos llevaron al estudio.

Muchos años después cuando vi la película no encontré la playa por ningún sitio, y menos la escena que había visto filmar con mis propios ojos.

Había en Saturrarán un profesor de Oiartzun, don Hipólito, que según me contaban los compañeros oiartzuarras que eran varios, era hijo de Goñi el que después aparecería en “La Reina del Chantecler” que cuando la guerra llevaba una barba larga y mandaba una partida de guerrilleros a la manera del Cura Santa Cruz. En verano los seminaristas de Errenteria retábamos a los de Oiartzun a partidos de fútbol. Tengo que confesar para mi vergüenza que siempre ganaban ellos. (Irigoyen, Michelena —que eran primos— Ormazabal, Andoni Lecuona, Aldave y no sé si alguno más. Sí, me dejaba al menos a Sorondo).

Eran los años del hambre y de la segunda guerra mundial. Desde los montes se oían a veces los ecos de bombardeos o quizás batallas navales. Nosotros decíamos: —¡El desembarco!



Playa de Saturrarán con las míticas rocas y el caserío Saturrarán que asoma tímido ante tanta belleza.

Los marineros de Ondárroa recogían de la mar fardos que flotaban a la deriva a consecuencia de naufragios o caídas de aviones. A veces eran fardos de mantequilla que les venían muy bien. Una vez recogieron unos comprimidos para los aviadores que pensaron sería alimento concentrado. Y se los tomaron. Y estuvieron varios días sin dormir porque eran pastillas para evitar la somnolencia durante el vuelo.

Aparte del espectáculo de las olas teníamos en Saturrarán otro exclusivo de los días de mala mar. El puerto de Ondárroa tenía una entrada muy peligrosa y los pesqueros no podían entrar hasta que el atalayero les diera paso. En caso contrario las olas los estrellarían contra la barra interior. En la barra exterior, por la parte de dentro, había un par de nichos donde se refugiaba dicho atalayero cuando las olas pasaban por encima. Que pasaban. Y los barcos esperaban fuera sus órdenes. Se asomaba al borde de la barra, daba sus instrucciones y se metía a todo correr en aquellos nichos en forma de concha.

Ahora todo ha cambiado y nosotros también.

Y hete aquí que me anuncian una película sobre Saturrarán. Y la pongo a grabar.

Quiero recuperar recuerdos antes de que se me escapen. Recuperar los 14 y 15 años irrepetibles.

Y la he visto.

Empieza con unas presas delante de una cárcel de piedras grandes y escuadradas y una escalinata que desde luego no es Saturrarán. Podría ser Edimburgo, Belgrado o Chinchurreta de los Corcones. Pero Saturrarán, no. El interior no se parece tampoco ni en pintura. En toda la película se ve tres o cuatro veces el mar que desde luego no es el de Saturrarán ni por el forro. En las cercanías hay unos bosques de hayas magníficos y llanos que no caben en Bilbao (Bizkaia) y menos en Saturrarán (Bizkaia).

Y ni una toma de la playa, ni una toma de las míticas rocas. Si las presas no iban nunca a la playa, ¿qué hacía aquella alambrada de la que yo conocí los restos?

Matayotes matayoteton ta panta matayotes, vanidad de vanidades, todo vanidad (no lo he puesto en letras griegas por problemas técnicos, pero en el Kempis aparece mucho).

Otra cosa asombrosa me ha pasado con Saturrarán.

La última vez que estuve me encontré con la sorpresa de que habían desaparecido todos los edificios. Milagrosamente se conservan el río y el puentecito, menos mal. Y el monte, chapeau! Pero falta mucho terreno entre el río y el monte. Allí no cabe el patio que había delante del seminario, el seminario donde nos alojábamos un ciento de personas, y un pasillo trasero con duchas. Esto lo puede comprobar cualquiera que lo haya visto antes y lo vea ahora. ¿A dónde *quonian* se habrán llevado el terreno?

Apenas caben ahora unos letreros que hablan de la cárcel, de las presas, de la madre que las engendró y de los hijos que engendraron ellas.

Allí no hubo nunca un balneario ni un seminario (además ya digo que no cabría) sólo una cárcel de mujeres republicanas.

También he visto *“Ocho Apellidos Vascos”*. Sí se hace un poco raro que de Leiza, un pueblo de montaña, aunque se disimule perfectamente, se salga directamente al puerto. Pero Leitza es auténtica, Getaria y Zumaia también lo son y están donde deben estar.

Tengo miedo de que a algún productor yanqui se le ocurra hacer una película acerca de Juan Sebastián Elcano sobre la primera vuelta al mundo este año en que se cumple centenario. Porque a lo mejor la hacen en el Peñón de Gibraltar y ponen al fondo una imagen de Mikey Mouse en el papel del Ratón de Getaria



*Vista general de Leitza.
Fotografía: Euskalduna.*

Juantxo Maya Mikelarena

Herriari eta kulturgintzari emana

Zure jendea



90. hamarkadan, Euskal Dantzarien Biltzarrak Juantxori eskertza ekitaldia egin zion.

Juantxo Maya Mikelarena 1951. urtean jaio zen Erreterian. Oso gaztetandik gizarte zein politika mugimenduetan jardun du, baina bereziki nabarmentzekoa da azken 30 urtetan, atsedetik gabe, Erreteriarako kulturgintzan egindako lana. Bere ekimenez sortu eta gauzatu dira Erreterian egun oso finkatuta diren ekimenak, eta ekimen horietatik abiatutako dinamika ugari ere. Eta aurten, 2018. urtean, Juantxok, gorputz eta arima eskainiz, gauzatu dituen ekimenetako askok urteurren garrantzitsuak ospatzen dituzte, esate baterako: Erromeria Egunak, 20. urtemuga; Dantzari Txiki Egunak, 30. urtemuga; Gipuzkoako Aurrekulari Txapelketak, 30. urtemuga; Bertso Festak, 20 urte edizio igaro berri...

Ekitaldi horien guztien (eta beste askoren) sorreran eta gauzatzean arima jarri du Juantxok, eta gaur egun ere horietan burubelari jarduten du lanean. Haren inguruan lankidetzan jarduten direnek dioten moduan: "Motore bat da, bera da beti lehen deia egiten duena, denak martxan jartzen gaituena... edozein beheraldi dagoenean guztiak esnatzeko deia egiten duena... Eta nekazina da!!". Dendariek, elkarte gastronomikoetako kideek, udal teknikariek, elkartekideek... go-goan dute segur aski. Izan ere, ekitaldi bat aurrera ateratzeko ekimenean nekazina da. "Egin behar dela sentitzen duenean eginahalak egiten ditu; berdin dio horrek eskatzen duen ahalegina. Juantxorentzat egin behar horrek du lehentasuna eta lortu arte ez da gelditzen, behar den guztia ematen du: lanorduk, baliabideak... Dena".



*Austrian, Josu Ibarguren taldekide
nekaezina lagun duela*



Belgikan, herriko dantzari gazteak lagunduz

Azken urteetan, Ereintza Dantza Taldeko dinamikan txertatua dihardu, baita Landare eta Erein Elkarteetan ere. Zenbatezinak dira berak sustatutako eta gauzatu arte buru-belarri butzatu dituen kultur ekitaldi andanak: Erromeria Eguna, Bertso Festa, Gipuzkoako Aurrekulari Txapelketa, Dantzari Txiki Eguna, Udaberri Jaia... Gazteentzako kultur zein kirol lehiaketa eta erakustaldiak, Errenteria Dantzan, herriko gazte eta atzerriko herrialde ezberdinen arteko kultur trukaketak... eta parte hartu duen batzorde andana ere: Errenteriako inauteria (Azeri Dantza eta Sardina Ehorzketa), Gipuzkoako Dantza Solte Txapelketa, Errenteriako Dantza Eskola, ikuskizunen antolakuntza (Nomadak Tx, Hostoak, Herritmo...) eta abar.

Ekintza hauek herrian piztu eta iraunarazi izana bada nahiko meritu, baina ekintza hauek sortu duten oihartzuna eta jarraipenak dinamika oso garrantzitsuak ekarri dituzte oihartzun gisa. Herrian zein herritik kanpo. Adibide gisa,

Erromeria Egunaren arrastoan plaza dantzen giroak izandako bultzada, Errenteriako txapelketen ostean aurrekulariak 90. hamarkadan izandako pizkundeak eta abar, eta abar, eta abar.

Horietan guztietan irmo, temati... baina batez ere lagunkiro jarduten du. Taldea sustatuz, beti taldearen zerbitzura jarriz.

Euskal kulturaren pizkundera eta transmisioa izan du beti aldarri nagusi. Herri eta aberriarekiko bere ekarpena horretara bideratuz, eta azken urteetan begiz jota du lan hori gazteen artean hedatzea. Horretan dabil, buru-belarri, Ereintza Dantza Taldearen baitan gazteengan kulturzaletasuna, atxikimendua eta ardura sustatu nahirik, lantaldeetan bere esperientzia haiekin konpartituz.

Itzaleko langile porrokatua, jende aurreko agerraldietan baino barne-lanetan jarduten dena, eta egun lan hori guztia belaunaldi be-



Beti dantzaren inguruan, eta inoiz dantzatu gabe. Erromeria Egunean salbuespena egin zuen behingoz!

rrien esku uzteko ahalegin handia egiten ari dena. Herrian martxan diren dinamika asko eta askoren pizkundera hari zor diogu, eta etorkizunean jarrai dezaten gazteekin egiten ari den transmisio lana ere bai.

Egin duzun guztiagatik, egiten duzun guztiagatik eta transmititzen diguzun guztiagatik eskerrik asko!!!!



Un lance de honor

Josean Ruiz de Azúa

La prensa de 1906 recogió un suceso –un duelo– que me llamó la atención por varios motivos: en primer lugar, porque un duelo tiene todo el sabor de algo que pertenece a otro mundo y a otros tiempos; en segundo lugar, por algunas circunstancias que le añadían colorido (personajes de la nobleza, tío y sobrino, el arma empleada: sable); y, finalmente, porque tuvo lugar en las inmediaciones de Errenteria, un lugar en el que, a priori, parecía improbable que ocurriera algo así.

Luego, en la medida en que recopilaba información al respecto, iban apareciendo detalles que tornaban más atractivo el lance de honor y más divertido también, me atrevo a decir, ya que la cosa, lo adelanto, no terminó en tragedia.

Hay algunas diferencias en las versiones de los diferentes periódicos que obedecen a que la información se ofrece según se va produciendo, muchas veces sin poder contrastar hechos de los que el periodista no ha sido testigo. No obstante, todas las gacetas coinciden en lo sustancial.

Todo empezó cuando en la noche del sábado 8 de septiembre de 1906 el marqués de Viana y el duque de Andría, tío y sobrino, se encontraban en el comedor del Hotel du Palais de Donostia. Hay que precisar que el Hotel du Palais, inaugurado en 1876, estaba en el lugar que fue ocupado posteriormente por el Banco Guipuzcoano, en la calle Fuenterrabía, y que antes de la inauguración del Hotel María

Cristina (1912) era uno de los hoteles más prestigiosos de la ciudad, frecuentado por políticos y aristócratas de alta alcurnia.



Hotel du Palais

Pues bien, el comedor del Hotel du Palais estaba repleto de gente que fue testigo de lo sucedido. El tío se dirigió al sobrino diciéndole lo siguiente:

- Me han dicho que has tomado mi nombre, diciendo que yo te había comprado unos caballos, y aunque supongo sea una broma, te ruego no vuelvas a gastarla, pues ya añade la gente que son para S. M.

No era raro que la gente sacase esa conclusión, ya que el marqués de Viana era caballero de palacio, además de montero del rey Alfonso XIII, cargos a los que sumó más tarde el de sumiller mayor de Corps. En cuanto al duque de Andría, era dueño de una notable cuadra y se encontraba en San Sebastián con el objeto de participar en un concurso hípico.

El sobrino le contestó que, efectivamente, se trataba de una broma inocente, a lo que su tío le replicó:

- Pues mira, cierta clase de bromas, ni deben darse nunca ni pueden ser toleradas.

A lo que el sobrino respondió con una agresión sobre cuya naturaleza no hay unanimidad. Así en algún medio se dice que se abalanzó sobre su tío y le propinó una bofetada, y en otros que le golpeó cuando ya se había vuelto. En lo que

sí coinciden los relatos es en el asombro que tal comportamiento causó en los presentes –la marquesa de Viana se desmayó del susto, según parece–, y en la sangre fría con la que reaccionó el tío, quien, en vez de responder a la agresión, sujetó, dominó y obligó a sentarse al sobrino, diciéndole:

- Pero ¡Por Dios! ¿Tú estás loco, Pepe?

El *maître d'hotel* quiso intervenir ante el temor de que el rifirrafe se convirtiera en una pelea



El marqués de Viana (a caballo) charlando con Alfonso XIII durante una montería en el coto de Doñana.

en toda regla, pero el marqués de Viana, con toda templanza, dijo a los presentes que no se ocuparan, que él tomaría las medidas oportunas.


Y tales medidas consistieron en montar en su coche, ir a palacio y presentar la dimisión de su cargo, dimisión que fue aceptada por Alfonso XIII, y, a continuación, nombrar sus padrinos al marqués de Villaviciosa y al sr. Cívico. El duque de Andría, por su parte, nombró a los suyos: el duque de Gor y el marqués de Martorell. Como se ve la cosa quedaba entre duques y marqueses, marqueses y duques.

Todo esto lo conocemos a través de la prensa; los corresponsales van informando de lo sucedido por teléfono, según se producen las noticias, por lo que los artículos son una sucesión de noticias de "última hora" en un mismo ejemplar que mantienen la expectación y dan una extraña sensación de modernidad, no muy diferente de la de los actuales programas de televisión en directo que cubren algún suceso de importancia. Así, tras todo lo anterior, se informa de que el encuentro se verificaría a

las cinco de la madrugada en la frontera y que la terraza del hotel estaba llena de "señoras y diplomáticos" (extraña composición de la concurrencia) que se mostraban favorables al marqués de Viana, a la vez que sospechaban que algo más debía haber para que el duque de Andría hubiera llegado a tal extremo. También en el Boulevard lo sucedido era la comidilla de los paseantes. Y hay que decir que la opinión pública también se puso del lado del marqués de Viana, a quien le daban la razón.

según los estudiosos de la materia, los seles (también conocidos como *sarobes*) tuvieron una influencia enorme en la delimitación de los municipios. De hecho, una de las hipótesis de trabajo de Aragón Ruano⁵ era que los seles fueron un elemento de esencial importancia en la territorialización municipal, ya que todo parece apuntar a que las villas se fundaron teniendo en cuenta la distribución y propiedad de los seles. Igualmente, merece la pena hacer referencia a la alegación que Oiartzun presentó en el largo pleito que mantuvo con nuestro municipio. Decía que “muchos seles de los vecinos de Oiartzun que estaban empadronados en dicho valle y contribuían en sus pechos, derramas y pedidos, quedaban en el amojonamiento bajo jurisdicción de la villa”⁶. A pesar de tales apelaciones, la sentencia dio la razón a Errenteria.

Entiendo que es un momento oportuno para poner los seles en valor. En la revista *Bilduma* nº 23, de 2010, presenté un avance de los seles en Errenteria. En la introducción al mismo decía que dicho trabajo era “una primera entrega de un material que contribuye a expresar con mayor nitidez una parte de las señas de identidad de nuestro municipio”⁷.

Con este artículo pretendo aportar mi granito de arena a lo que debiera ser un gran proyecto con múltiples iniciativas, tanto institucionales como privadas. Son dos las acciones concretas que quiero proponer en las que, lógicamente, debiera intervenir la institución municipal: la excavación del sel de Yanci/Igantzi y la organización de visitas guiadas al sel de Belastegi. ¿Por qué ambos seles y no otros? ¿Qué sabemos de ellos?


5. ARAGÓN RUANO, Álvaro: El bosque guipuzcoano en la Edad Moderna: aprovechamiento, ordenamiento legal y conflictividad. San Sebastián: Aranzadi Zientzia Elkartea, 2001; e ÍDEM: La ganadería guipuzcoana durante el Antiguo Régimen. Bilbao: UPV-EHU, 2009.

6. IRIJOA CORTÉS, Iago y LEMA PUEYO, José Ángel, op. cit., IX.

7. ARENZANA, Txema: “Los seles en Errenteria: una primera aproximación”. En: *Bilduma*, 23 (2010), p. 180 (1880-214).



Yanci Google Earth



Yanci - Nevera

PRIMERA ACCIÓN: LA EXCAVACIÓN DEL SEL DE YANCI / IGANTZI

La primera referencia escrita que tenemos se halla en el pleito sobre los montes y seles que entablaron los ferrones y los arrendatarios de los monasterios de Roncesvalles y San Juan de Rodas, donde se dice de este sel que es mayor de 12 goravillas de radio, equivalente a 164,05 m, llamado *beyerdisarobe*. Asimismo, en la escritura de venta de la cuarta parte del sel de Yanci/Igantzi se menciona a Bartolomé de Arbide, y cifra su valor en 20 ducados de oro⁸. En el mismo siglo XVI se menciona dicho sel en las actas de 13 de marzo y 15 de mayo de 1566. Posteriormente, aparece en un pleito entablado en la Real Chancillería de Valladolid entre 1580 y 1585, en el que se exige que se respete al demandante la posesión del sel y monte de Yanci/Igantzi, que pertenece a la casa de Arbide⁹.

Un escrito del 7 de septiembre de 1681 recoge el arrendamiento desde el primero de 1682 hasta 1685 de una nevera, fabricada recientemente,

que tenía la Villa en dicho sel¹⁰. Igualmente, en el libro de actas de 1791 se menciona el mismo sel, propiedad de D. Ignacio de Urdiñola a raíz de los daños causados en el mismo por los operarios al servicio del Ayuntamiento en sus labores de corta, al propasar los límites del mismo. El Ayuntamiento decide compensarle por dichos daños a razón de 7,5 reales de vellón por cada carga de carbón de leña, estimando que fueron 12 las cargas cortadas en dicho sel. Por último, deciden encargar y posteriormente colocar 12 mojones de piedra arenisca de Jaizkibel para la delimitación del sel¹¹.

Para completar este trabajo documental, realizamos trabajo de campo. Provisos de GPS¹², nos situamos junto al mojón central, también llamado *artamugarri*, situado en el collado de Igantzi, muy cerca de un puesto de caza y a unos 200 metros de la nevera (*elurzulo*) que, según lo anteriormente mencionado, se encuentra dentro del sel. Antes hemos hablado de que a finales del siglo XVIII el ayuntamiento encargó la colocación de 12 mojones periféricos para delimitar el territorio


8. Para el pleito de 1514, vid. AYERBE IRIBAR, M.^ª Rosa; IRIJOA CORTÉS, Iago y SAN MIGUEL OSABA, Ana: Documentación medieval del archivo municipal de Oiartzun. II. Pleito de los ferrones (1328-1514). San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, 2014, doc. 30, pp. 185 y 187; la escritura de venta en Archivo Municipal de Errenteria (en adelante, AME), C-5-IV-9-1, años 1525 y sgtes.

9. Y añade: que no se le inquiete en las talas, cortas y aprovechamientos que de él haga; ni se aprese a sus carboneros (ARChV. Pleitos Civiles. Moreno, Fenecidos, 571-1). Las menciones de 1566 pueden verse en AME, A-1-9, folios 49 v.º y 50 r.º, e ibídem, folio 54 v.º

10. AME, E-7-III-3-1.

11. En el escrito se menciona también el presupuesto en comida que consumieron los operarios por no poder desplazarse a casa debido a la distancia existente. AME, A-1-112.

12. Trabajo en el que estuve acompañado de Iñaki Prieto.



Yanci - Mojón Periférico




Yanci - Mojón Periférico

del sel. Nosotros únicamente fuimos capaces de localizar dos de ellos. El primero, que nos da ya la medida del radio del sel, está situado junto a una pista y muy cerca de las ruinas de una vieja borda. Siguiendo la circunferencia con la ayuda del GPS fuimos capaces de localizar un segundo mojón periférico.

¿Qué pretendemos con la propuesta que se formula?

A través de personas expertas en la materia y dotadas de los medios técnicos adecuados, proceder a realizar una excavación en torno al mojón central, como han realizado otros ayuntamientos de nuestro entorno, y poder obtener datos complementarios, como la fecha de su realización. En definitiva, profundizar en las raíces de nuestro municipio. Anteriormente hemos hablado de Aragón Ruano en el sentido

de que los seles fueron un elemento de esencial importancia en la territorialización municipal, ya que todo parece apuntar a que las villas se fundaron teniendo en cuenta la distribución y propiedad de los seles. Ello lo corrobora el hecho de que numerosos seles de nuestro territorio están ubicados en la línea divisoria con los municipios vecinos. Siguiendo al mismo autor, y entrando ya en la divisoria de los actuales Errenteria y Oiartzun, los seles o cubillares aparecen “como fórmula de diferenciación con respecto a la comunidad, y sirvieron también como punto de referencia a la hora de delimitar los territorios y jurisdicciones pertenecientes a unas y otras comunidades”¹³. Un ejemplo de ello es la nómina de seles o cubillares que aparecen, entre las actuales localidades, en el convenio establecido en 1389 entre Ayero, señor de Ugarte, y el Hospital de Roncesvalles.



Yanci - Mojón central

13. ARAGÓN RUANO, Álvaro: La ganadería..., op. cit., p. 122 .



Belastegi - Catastro



Belastegi - Mojón

SEGUNDA ACCIÓN: LA ORGANIZACIÓN DE VISITAS GUIADAS AL SEL DE BELASTEGI

Las referencias sobre este sel van unidas al sel de Belascampan del que también se conserva el mojón central (junto con el de Yanci son los dos únicos seles que lo conservan). La primera de las referencias data de 1499 (estimo de Oiartzun). Asimismo, aparecen numerosas menciones en las actas municipales desde 1534. En concreto, en una de 1683 dice: "Propiedades. Cuartel oeste. Escritura y sentencia arbitraria, sobre diferencias que traían la villa de Rentería y Doña María de Aliri Guarnizo, propietaria de la casa llamada Torres y de dos seles, denominados Belastegui y Belascampan"¹⁴.

Asimismo, en otro expediente relativo a la contaduría de bienes de Antonio de Urdinola, entre sus muchas propiedades menciona "la casa nueva de Belastegui y sus pertenecidos" y entre ellos dice: "254 posturas de manzano de tierra sembradía que tiene la dicha casa en su zel, estimaron y tasaron cada postura¹⁵ en 13 reales de plata"¹⁶. Por último, en Acta fechada el 22 de diciembre de 1767 se indica que: "Otro día ocupó en fijar los mojones de la división del sel de Belastegui"¹⁷.

El topónimo Belastegi, con distintas grafías, se ha mantenido hasta hoy y del que vamos a ver su recorrido. La primera referencia como *Velaztegui*, definida como monte, la encontramos en el Acta de Amojonamiento de Rentería llevada a efecto entre el 2 y el 11 de julio de 1495. Tomando siempre como fuentes las actas de visita a los mojones del término municipal, tenemos que:

- En 1755, cuando describe el mojón 63 dice: "mojón en Velastegui" y en el 64 "otro mojón en la misma Velastegui".
- En 1787, referido al mojón 84 dice: "...a otro mojón que avía en Belaztegui junto al cerrado de las tierras concejiles" y en el 85 "...en el otro partido de Belaztegui en un plano junto al camino...".
- En 1889: menciona Belastegui-casería y Belasteguiko muga-paraje, topónimos que se repite en idénticos términos en las Actas de 1939-44 y 1989.

Además de su existencia por vía documental, conocemos perfectamente su ubicación, en un lugar privilegiado, cercano a la divisoria con el municipio de Oiartzun, y lindante con el caserío Aitzarte, antigua escuela rural. Gracias

14. AME, C-5-IV-8-2.

15. 3 posturas es igual a 1 área.

16. AME, E-7-I-5-11.

17. AME, A-1-90, folio 278.



Belastegi - Mojón

a la colaboración de Valeriano Beratarbide, dueño del caserío, ya fallecido, recorrimos en su integridad el perímetro del sel. El mojón central o *artamugarri* desapareció (los seles son esenciales para explicar el origen de los caseríos) al levantarse el caserío que está en el centro del mismo. Sin embargo, se conservan hasta un total de 21 mojones en la periferia, de distintas épocas, aunque muchos de ellos no se corresponden con la inicial distribución del sel, sino más bien con posteriores deslindes del terreno. En su momento, redacté el recorrido (*Bilduma*, nº23) del perímetro del siguiente modo:

Salimos del caserío Aitzarte para descender y localizar el primer mojón junto al camino. Bordeando una hondonada, localizamos varios mojones. Seguidamente ascendemos un tramo inclinado penetrando en terreno sucio y caminando junto a la valla del caserío Uharte berri hasta salir al camino. Lo cruzamos y entramos en el pastizal. En su vértice más bajo encontramos otro mugarri y dos más según subimos la inclinada ladera. Seguimos dando la vuelta, pasando cerca del caserío Txoritokieta. Salimos al carretil asfaltado donde encontramos un mugarri empotrado en la pared del talud. Cruzamos el carretil y seguimos la alambrada divisoria en descenso hasta la regata Egieder, que hace de divisoria durante un tramo. Nos separamos de ella ascendiendo junto a la alambrada, cruzamos un camino y seguimos monte arriba hasta el triple mugarri, muy cerca del caserío Aitzarte.



Belastegi - Mojón

La acción que proponemos, con punto de arranque en 2020 (fecha del 700 aniversario) consiste en lo siguiente: introducir en el programa educativo un capítulo dedicado a los seles y organizar visitas guiadas con los escolares para su conocimiento práctico, como en ocasiones se ha hecho con alguno de los centros educativos con los mojones divisorios del término en el tramo comprendido entre Perurena y Listorreta. Dichas visitas pueden ser ampliadas a otros sectores de la población.



Belastegi - Mojón



Belastegi Aitzarte

Haurtzaroko oroitzak galduak

KapitaneneKOa

Haurtzaroa omen da gizaki helduaren aberri galdua. Honako honek oroitzak galduen berreskurapena nahi luke izan, mundu galdu baten geografia, aurten hirurogei urte bete beharko lituzketen hirurogeita hamabost mutilen hala moduzko historia. Haurtzaroa urte tarte eta leku jakin batean kokatu eta mugatuko dugu, lau eta zazpi urte bitartean eta geografia konkretu batean, garai hartako Errenterian eta bereziki Alamedako eskola ahaztua izango dugu, oroitzaren bitartez, berreskuratuko dugun iraganaren geografia.

Lau urte bete berritan hasi nintzen eskolan, gure amak, Biteri eskoletan izena ematen saiatu ondoren, *Hermanos Corazonistas* fraideetako eskolan apuntatu ninduen. Ez zen hura ikasketekin izan nuen lehen harremana, hiru urterekin Kapitanenea kaleko 8an auzoko *señoritas* ematen zituen klaseetan egona nintzen, neska-mutil talde txikia ginen han, eskola ohiturak ikasten genituenak. Alamedako *hermanoen* eskola beste gauza bat zen. 1963ko udazkeneko goiz batean amak lagundu ninduen eskolako ateraino, han utzita, bera bueltatu egin zen etxera eta ni oraindik azkarrago Kapitaneneko gure etxeko atarian nintzen. Ume moko hark hura ez zuen nahi, eskola ez zen berarentzat. Ama ez zen iritzi berekoa, jakina. Beraz, etxeko atarian aurkitu ninduen hartu eta berriro bueltatu ninduen eskolara. Era horretan hasi zen ume harentzat hogeita bi urte arte luzatuko zen eta Bartzelonan amaiera izango zuen ikasketa erregelatuaren bidea.

Parvulitoak ginen, lau urteko beste hirurogeita hamabost mutilekin batera, *Parvuloen* klasea osatzen genuen. Talde argazkian garen askok eta askok, gehienak esango nuke, hurrengo hamabi urtetan Corazonisten eskolan egin genituen ikasketak. Baina ez nahastu, ez da hau, ez du izan nahi, eskolaren oroitzak, hango lagunena eta Alamedako eraikin zahar harena baizik.

Gogoan dut oraindik eskola hartzen zuen eraikina, Fabrika Handiaren parte izandako pabilioi bat zen, pisuetako ehungintzarako lantegia; ondoan garaian oraindik lanean zen Sociedad de Tejidos de Lino fabrikaren parte izandakoa. Eskola bidean, Nafarroa hiribideko espaloitik gindoazela, entzuten genuen Lino fabrikako ehuntzeko makinen “triki-traka” soinua, bide hura egin genuenoi betiko memorian iltzatua geratu zaiguna.

Bere azken urtetan harrapatu genuen eskola-etxe hura. 1918an zabaldua zen han eskola, 1966an itxi zuten, guk *preparatorioko* ikasturtea bukatu genuen garaian. Urte horretan argitaratu zen *Corazonistas* aldizkariak jaso zuen Alamedako eskola-etxe haren historia: “En 1903 –[*Hermanoak* Errenteriarara iritsi ziren urtean] Rentería tenía 3.000 habitantes; en 1918 la población se había duplicado y la necesidad de un Colegio se hacía sentir más a lo vivo. Se hacen gestiones y se llega a un acuerdo con don Tomás Gaztaminza, Director de la Fábrica de Tejidos de Lino; cedería una parte del inmueble, que tras las reparaciones convenientes podría cubrir las necesidades



Alamedako eskola 1965

del momento. En seis semanas de trabajos de adaptación queda todo a punto y el 1 de diciembre abre sus puertas el nuevo Colegio.”

Lino lantegiaren parte izandako *Hermanoen* eskola-etxe hura bi solairuko eraikin errekangularra zen, bi aldeetatik bi metro eta erdiko altura hartzen zuen harrizko pareta batez hesitua zegoen inguruan. Hesian, errepide aldeko aurpegian, bi orriko atea zabaltzen zen, hori gaindituta patio estu batera sartzen zinen; eskuinetara, kale aldeko paretari atxikiak, komunak; zuzen jota, lau metro zabaleko pasabide estu bat, olgetako patio gisa erabiltzen genuena; eta haren bukaeran, eraikinaren beheko solairu osoa hartzen zuen patio estalia. Pasabidean zabaltzen zen eraikineko sarbidea. Ezkaratza txiki batetik sartuta, eskailera estu batzuk igota lehen solairura pasatzen zinen. Eta sarrera hartan, eskaileraren frontisean zintzilika, ume haien guztien desio objektua zen karreretako txirringa, urtero zozkatzen zutena eta baten bati tokatzen omen zitzaiona, ez guri bederen.

Lehen eta bigarren solairuan ziren ikasgelak. Historia honetako umeok bakarrik lehen solairua bizi izan genuen; han zabaltzen ziren, ezker-eskuin, bi gela handi, bere luzera osoan ate korredera baten bitartez bereziak. XIX. mendeko ehungintzako *jacquard* makinak hartu izan zuten espazioa ikasgela bihurtua zen.

Ezkerretakoa *parvulitoen* gela zen, eskumakoa *preparatoriokoa*. Gelek zorua zurezkoa zuten, zaharra eta zuloekin; inoiz arratoiren bat pasatu zen gure *parvuloko* gelatik, ez dakik zeinek izan zuten beldur gehiago, arratoiak ala umeok.

Aipatu moduan, 1963-1964 ikasturtea zen, eta han ginen binakako *pupitretan* eserita, 76 ume. Ikasgelako aurrealdean tarima zen, honen gainean irakaslearen mahaia eta hormatik zintzilika, pareta osoa –eta errepidera ematen zuten leihoak- hartuz, arbel erraldoia. Tarimaren izkina batean mahai txiki bati iltzatua txorroskiloa genuen, arkatzei punta ateratzeko gailua. Eta gela presidituz Gurutzea eta Jesusen Bihotzaren irudia, hura kristau eskola zen. Gelaren ezkerreko aldean, komun txiki bat genuen. Hori zen gure ikasgela. Eta eskumara, gela osoko luzera hartzen zuen erditik gora kristalak zituen atearen beste aldean, *Preparatorioko* ikasgela zabaltzen zen, gurearen bikia, nahiz hark ez zuen bere baitan komunik. Hura ere bizi izan genuen.

Irakaskuntzagatik ordaindu egiten zen. Ordaindua eta garesti pagatua zen eskola. Inbertsio handia egin zuten guran gure gurasoek. Aipatutako *parvulo* eta *preparatorio* klaseak hautazkoak ziren, gure haurtzaroko garaian derrigorrezko eskolaldia zazpi urterekin hasten baitzen. Gu ez baikara EGBko garaikoak. Txiketakoa klaseak, aipatutako *Párvulos* eta



1963 - 1964



1964 - 1965

Preparatorio ondoren, zazpi urteetatik aurrera Lehen Hezkuntza hasten zen, lau ikasturte guztira. Hamaika urterekin Batxilergoa hasten genuen, bi zatitan banatua: lehenengotik laugarrengora Oinarrizko Batxilergoa, eta bosgarrenak eta seigarrengoak Goi Batxilergoa osatzen zuten. Oinarrizko Batxi-

lergoa amaituta, hamalau urterekin, hautazkoa genuen Goi Batxilergoarekin jarraitzea edo Oinarrizko Lanbide Heziketara jotzea. Seigarrenean amaitzen zen batxilergoa, titulua atera ahal izateko errebalida azterketa gainditu behar zen. Ikasketekin jarraitzekotan, bi aukera zabaltzen ziren: bigarren mailako


lanbide heziketari heltzea ala goi mailako ikasketen eta unibertsitatearen bidetara ekitea eta horretarako lehendabizi COU ikasturtea eta unibertsitatean sartu aurretik selektibitate gaitu behar ziren. Gauzak ondo, hamazazpi urterekin iristen ginen unibertsitatean.

Gutako gehienok *parvulitoetan* bi urte egin genituen, lau urterekin hasi ginelako, orduan antolatzen zirelako klaseak eta Corazonisten eskolan lekua izatekotan orduan sartu behar gintuztelako.

Gurean eskola gaztelania hutsez zen, jakina. Argazki hauetako haurrideak Errenteriako 76 mutiko gara, jaio ginenean 20.000 biztanle zituen gure herriak, 11 urte beranduago 42.000. Gelako batzuk euskaldunak ginen, besteak ez. Urte haietan nabarmena zen euskararen atzerakada gure herrian, lagun artean baziren oraindik guraso euskaldunak umeari euskara pasa ez ziotenak; ez zen nire

kasua, *atte* Goierrikoa, ama Berastegikoa, biak aspaldidanik errenteriar tuak, euskara nuen hizkuntza etxean eta euskaraz jolastu izan nuen kalean. Eskolara iritsi nintzenean nire gaztelania kalean ikasitakoa zen, gehienbat. Ezagutza maila adierazteko adibide bat, ikaskide batek egun batean *“esta tarde te vamos a atacar”* adierazi zidan, eta nik jakin gabe zer zen *“atacar”*, hurrengo egunean ikasi nuen hitzaren esan-nahia. Handik bost urtetara ume hark euskara kamustua zuen; eskola hark berea ondo betetzen zuen. Baina une berean, garai horretan gorputzu zen euskararen goraldia, ikastola orduan sortutakoa da eta gau eskolak bideratu zituen, eskolatik kanpo, ume haietako asko euskaraz alfabetatzera.

Garaiko haurrok oraindik orain kalean jolasten genuen. Autoak ez ziren hamar urte geroago gertatuko ziren bezain ugariak. Umetan, Foru plaza (orduan orube zabala, jaio ginen urtean bota baitzuten lehenagoko azoka zaharra) eta



Preparatorio orla ordaindua 1966

Alameda izan nituen jolastokiak. Eskolan hasi aurretik auzoko neska-mutilak jolasten ginen elkarrekin; eskolan hasi ondoren, adiskideak gelako lagunak genituen. Josetxo, Fernando eta hirurok ginen gu. Mutikoak mutikoekin, neskak neskekin, hor hasi zen neskekiko mutiko haien distantzia, are handiagoa arrebak edo lehengusinak ez genituenentzat.


Eskolak astelehenetik larunbatera izaten ziren, goiz eta arratsalde. Ostegun arratsaldetan genuen festa, eta igandeetan jai. Horrela izan zen 1963 eta 1966 urte bitarte honetan. Ohikoa zen ostegun arratsaldeko festa eguna, bereziki fraide eta mojen eskoletan, Biteri eskolan eta nazionaletan –oso oker ez banaiz- jada larunbat arratsaldetan zuten jai.

Hermanoen metodoa klasikoa zen, hezkuntza zorrotza, *parvulo*etatik hasita, hamabostero-hamabostero nota orokorrak, eta bitarteko bi astetan notak "Conducta" y "Aplicación" neurtuz, bederatzi edo hamar atera behar zen biotan, horietako batean zortzia edo gutxiago

izanez gero kastigua. Eta beti, etxera bidaltzen ziren notetan, aita edo amaren firma zor zen, jaso zituztelako erakusle.

Ez dut gogoan kontatzen ari garen hiru kurtso hauetan zigorrak jaso ote genituen. *Primarian* eta hamar urte bete ondoren hasten zen Batxilergoan zigor fisikoa jasoak gara eta modu ugarian: behatz puntetan eta ahurretan erregelarekin kolpeak, zaplatakoak, belarrondoko iletik tiraka lurretik altxatzea... Esan dezaket nire bizitzan 16 urterekin jo nindutela azken aldiz, zapatila batekin eta klase osoaren aurrean.

Parvulo eta *preparatorio* urteetan arratsaldeko klaseetako azken ordu erdia arrosarioa errezatzen ematen genuen. Horrela, fraidetan eskola 16 urterekin amaitu genuen arte errosarioaren errezoa laguna izango genuen egunero. Gogoan dut *parvulo*etan Pascual *hermanoa* erlijioako klasea guri ematen, infernuko irudi barroko barrokoenak lagun. Ez dut uste amets gaiztorik sortu zigutenik,




Notak urria 1965

laurogeiko hamarkada hasieran Pascualek oraindik klase berak ematen zituen, eta dirudenez irudi barroko berdinekin, orduan gurasoak kexatu egin ziren umeei eragiten zien beldurragatik.

Eskola hartan nagusia zuzendaria zen, *"el hermano Director"*, bera zen jaun eta jabe. Eta inpresioa egiten zuen, hala fede, gogoan dut adin tarte honetan plastikozko panpinekin bakeroetara jolastan eta haietako nagusiari izena jarri behar izan, eta *sheriff* edo kapitaina izendatu ordez, *"director"* jartzea. Hori zen haur harentzat agintearen izena.

Parvuloetan hasi ginen *Hermano Corazonisten* festa nagusia zen *"Día del Hermano Policarpo"* ospatzen. Policarpo Gondre, Corazonisten lehen *"superior general"* edo nagusia, ohoratzeko otsailean ospatutako festa. Lehen urte haietatik gogoan dut Tellerialden ospatzen zela, hura izan zen fraideen egoitzara sartu ginen lehen aldia eta horretara eta kurtso bukaeran talde argazkia egitera ez ginen besteetara joan Tellerialdera hiru urte haietan. Gogoan ditut, halaber, ikusitako kirol emanaldiak, gu txikiegiak ginen parte hartzeko eta bota zizkiguten pelikulak; ez dut gogoan meza, nahiz entzun genuela ziur izan.

Garai honetan egin genuen katekesia eta Lehen Jaunartzea. Vatikanoko II Kontzilioaren ondorengoak gara. Latinez ematen zen meza ez genuen ezagutu, aldiz handik urte gutxitara gazteentzako meza ugariak entzunak gara.



Katekesia parrokian egin genuen. Andra Mari Jasokundeko eliza, parrokia eta Alabergako eliza ziren ia bakarrak, Hospitalilloan ere meza ematen zen, baina Kaputxinoen eliza oraindik eraiki gabea zen eta zer esanik ez Iztietako San Jose Obrero.

Hain zuzen Lehen Jaunartzeak emango digu aukera izen eta abizenak jartzeko argazkietako mutiko hauei. Zer izen eta abizen ezkututzen diren lau talde argazki hauetan? Corazonisten eskolan ikasi eta 1966an Lehen Jaunartzea egin genuenon *"primeros comulgantes"* zerrendan aurkituko gaituzue. Hor gara gehienok, nahiz hainbatetan abizenak ez zuzen jasoak izan.

Eskolan hasi ginenean haurride haien gehiengoan etxeetan ez zen telebistarik. Irratia bai, hura entzuten genuen, gogoan ditut oraindik irratsaioak. Telebistan bi kate bakarrak ziren, TVE eta UHF deitzen geniona. Etxe bakan batzuetan telebista hargailua, ume guztion desioa. Zutenetara joaten ginen ikustera, gehien bat larunbat arratsaldetan, ilunabarrean klasetik irten ondoren. Gure lagunartean, Fernandoren izebaren Alabergako etxea zen telebista ikusteko lekua, zenbat *“Viaje al fondo del mar”* ez ote ditugun ikusi, eskuak begi aurrean jarrita, itsas azpiko munstroak ateratzen zirenean ezkutatzeko. Ostegunetan telebistak *Daniel Boone* ematen zuen, gure telesail maitagarria. Baina hori ikusteko telebista hargailua behar zen etxean, eta hura oso garestia zen. Gurean, Lehen Jaunartzea hartu baino lehentxeago, *Preparatorioan* nintzela, sartu zen telebista; hepatitis batek ekarri

zuen aukera, sei-zazpi urteko umea ohean edukitzeko bidea.

Zinea zen gure beste dibertsioa: urte hauetan zaletu ginen pelikuletara betiko. *Reina* aretoan umeentzako emanaldiak, arratsaldeko 15:30ean izaten ziren (ondoren, 17:30ean, 19:30ean eta 22:30ean gazte eta helduentzako emanaldiak egin ahal izateko), beraz etxeetako igandetako bazkariko ordutegiak umeen beharretara egokitu ziren. Eta Reinaren ondoan, umeentzako pelikulak eskaintzen zituen *“los Luises”*, igandeetako zinema aretoa. Programazio ez profesionalekoa zen eta *Luisetan* ez zuten beti karteleran iragarritakoa botatzen. Horrela gertatu zitzaigun *“Murieron con las botas puestas”* pelikularekin, behin eta berriro iragarria izan arren, ez zuten inoiz jarri eta ez nuen han ikustea lortu. Onbide zinema zen beste aukera, nahiz han ez zegoen



Día del Hermano Policarpo



Algunos de los equipos que participaron en los distintos torneos de Balonmano y Mini-Basket, organizados el día de la fiesta del Hermano Policarpo.

umeentzako berariazko emanaldirik. Alamedako zinema, Batzokiaren eraikineko zinemak ia ez zuen eskaintzen lau eta zazpi urte bitarteko umeentzako pelikularik.

Ez ginen zailak asetzen, Marujan, Pakin edo Alamedako karroetan erositako pipak, arto frijitua eta *karamelo* eta *Chupachupsen* bat eta, jakina, txikleak eta hauen artean Bazoka beltzak hoberenak, "*chicle Bazoka, siempre en la boca*". Noizean behin kremaz betetako bonbak eta udaran izozkiren bat, poloa edo eta izozkia, kukurutxo edo kortean. Horrekin moldatzen ginen igande arratsaldeetan zinetik irtenda gurasoekin bueltatu eta igande arratsaldeko paseoa eman aurretik. Orduko oroitzak dira Alamedako dantzaldikoak, Banda kioskoan musika joz eta bikoteak dantzan, euria ari zuenean aterkien azpian *dultzemeneoan*.

Baina, itzul gaitzen eskolako oroitzetara. Danborrada eta frustrazio txiki bat izan dezakegu horretarako aitzaki. Gauza da gure eskolak Jesusen Bihotzaren egunean danborrada ateratzen

zuela Errenteriako kaleetatik. Bertan Lehen Hezkuntzako ikasleek jotzen zuten, azkenekoa 1966an ateratzen, guk *Preparatorio* egin genuen urtean, beraz gure belaunaldia ateetan geratu zen, gure klasekoek ez genuen inoiz danborra jo eskolarekin.


Danborrada bezala, 1966an amaitu zen Alamedako eskolaren historia. Urte batzuk lehenago —gu jaio ginen urtean, hain zuzen— hasi ziren fraideak eskola klaseak ematen *Hermanoen* egoitza zen Tellerialde erresidentzian.

Hurrengo urtetik aurrera, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Batxilergoa Tellerialdeko eskolan egingo zen.



Jaunartzeak 1966


Epilogoa, 1978ko uztailearen 13an bueltatu nintzen azken aldiz Alamedako eskolara. Policia Nacionalak Erretereria sakeatu zuen goizean bertan. Bezperetan, Lino lantegiko ate nagusia bere lekutik atera eta barrukada bihurtu zuten errepide erdian, eta fabrika zaharreko sarrera zabalik zen bandoz bando. Handik joan ginen Joseanjel eta biok, barruko tarteetatik, erditik pasatzen zen Xamakorrekako kanalaren ondotik pasatuz, XIX. mendeko fabrika zaharra osoa korrituz, zuloz zulo, gure eskola izandakora iritsi arte. Sorpresa hartu genuen, eskola izandakoa hutsik zen baina osorik, denboran fosilduta bezala. Bisita hartan aukera izan genuen etxe osoa miatzeko, bigarren solairuan Ereintzaren lehen egoitza izan zena deskubritu genuen, paretan margotua zen Ereintzaren armarriak erakusten zuen moduan. Hala ere, aurkikuntzen artean harrigarriena eskolaren bulegoan aurkitu genuena izan zen, 1966ko udarako koadernoak (ez dut gogoan "Vacaciones Santillana" edo "Cuadernos Rubio") ziren bertan lurrean botata. Nolatan ziren han, eskola ekainean itxi bazuten? Auskalo. Koadernoaren artean 1966ean Lehen Hezkuntzako bigarren urtea egin zuen Iñakirena zegoen eta bueltatu genion. Koaderno haietan, kaligrafia ikasteko beste adibideen artean, jaso zen behin eta berriro idazteko esaldia: *"España es mi patria"*. Eskolara azken bisita burutu ondoren, kalera irten ginen, hori zioten polizien aurrean korritzea suertatu zitzaigun.



Corazonistas aldizkaria azala 1966



Azken Danborrada



Página histórica

El hermoso bosque tuvo que desaparecer para la construcción del nuevo Colegio que sustituirá al ya cerrado de la Avenida de Navarra. Ahí veis algunas etapas de la construcción.



1966ko Corazonistak aldizkariak jaso zuen Alamedako eskolaren amaiera:

Para atender a los numerosos alumnos que incesantemente sollicitaban su admisión se habilitó en 1959 una parte de Telleri-Alde para los curso de Bachillerato Elemental, siendo este último curso [1966] el número de Bachilleres de trescientos alumnos. A partir de esa fecha, el Colegio de la "Alameda" queda exclusivamente para los alumnos de Enseñanza Primaria, ascendiendo el alumnado en este curso 1965-1966 a 444 los niños matriculados, más otros 136 que cursaban también esta enseñanza en el Colegio de Telleri-Alde. Por fin llegó la fecha de decir ADIÓS a estos viejos y tutelares muros. El 23 de junio de 1966 fue el último día que se dieron las clases en este viejo Colegio por donde han pasado tantas generaciones renterianas. Como dato histórico, pongo a continuación los que han hecho este último curso: Hermanos Severiano González Samaniego (Director), Pablo Echezarreta, Victor Gonxales, Evaristo Ruiz de Garibay, Gregorio Ortega, José Zaldivar, Miguel Ángel Muguruza y don Claudio Gómez.



José Luis Ansorena: nexo de modernidad musical en el País Vasco

Jon Bagüés

La personalidad de José Luis Ansorena viene definida fundamentalmente por dos ámbitos: el primero el de sus propias opciones personales, como es el de ser un religioso de observancia franciscana y en concreto de la Orden Capuchina, y el segundo por su entorno familiar, una familia donostiarra sólidamente anclada en la música y, en especial, el txistu y la música popular.

Relacionado estrechamente con la acción social, hay que destacar su gran labor con la juventud, principalmente en Pamplona, en ámbitos como el deporte y la música, creando en 1954 la Juventud Antoniana y la Escolanía. Una de sus principales acciones fue la creación de la tradición del desfile navideño del Olentzero en Pamplona.

Pero es la música en general, y a través de la música coral en especial, donde José Luis Ansorena desarrollará sus principales objetivos y mostrará su capacidad de liderazgo.

Destinado en 1966 al Convento de Capuchinos de Erreterria, creará inmediatamente la Coral Andra Mari, principal vehículo de sus logros. Con ella desarrolla novedosas muestras de música y paraliturgia, y promueve la nueva música postconciliar, para la que él mismo compone obras. Nada más llegar crea además en la parroquia la asociación juvenil Gaztedi, con quien desarrollará múltiples actividades, desde las deportivas hasta las acampadas veraniegas en Urbasa.

En 1968 creará el coro infantil Orereta, la cantera infantil de la coral Andra Mari, además de sustituir a Iñaki Goñi como director del otxote Karnaba. En 1972 funda con destacadas voces de la coral el otxote femenino Alai y en 1976 el coro juvenil Oiñarri.

La curiosidad intelectual es uno de los rasgos de José Luis, como lo prueba una muestra de compositores seleccionados para sus programas corales a lo largo de sus años como director de la Coral Andra Mari: Purcell, Britten, Vaughan Williams o Luigi Nono; Prieto, Thomas, Ruiz Aznar o Mompou.

Buen conocedor del valor de las músicas del pasado, creemos sin embargo que destaca José Luis por su decidido apoyo a la música contemporánea. Forma parte de la comisión organizadora de los dos Festivales de Música Contemporánea que se celebran en Donostia los años 1973 y 1974.

Paralelamente, siendo consciente de las dificultades de difusión de las obras de los compositores vascos, lanza en 1973 desde Erreterria la semana Musikaste, cita anual de promoción e impulso a las obras compuestas por los creadores de la música vasca, festival que este año 2019 ha celebrado en mayo su 47 edición.

De Musikaste surge en 1974 el proyecto que más trascendencia cultural supone para el País Vasco como infraestructura musical: Eresbil, primeramente llamado Archivo de Compositores



José Luis Ansorena en el Salón de Plenos, inaugurando Musikaste en 1995



José Luis Ansorena, dirigiendo la Coral Andra Mari en 1989

Vascos y ahora subtítulo Archivo Vasco de la Música. Cambio que se explica por la ampliación de horizontes que él mismo potenció. De la idea inicial de recoger cuantas obras hubieran compuesto los compositores vascos a lo largo de la historia como sustento de la programación de Musikaste, se consolida como la entidad que preserva lo que musicalmente han creado, producido, difundido o recogido los creadores e intérpretes en o sobre el País Vasco, un lugar para la constante alimentación de la memoria musical vasca, el archivo de nuestro patrimonio musical.

El apoyo al conocimiento y difusión de la música antigua y de la música tradicional es otro de sus aspectos a resaltar. No solo mediante el rescate de obras del pasado, sino también a través de la investigación. Gracias a su inquietud sabemos hoy más de músicos del pasado, como Hilarión Eslava o tantos otros músicos presentados en Musikaste. Escribió libros sobre otros músicos, como Raimundo Sarriegui, y publicó una detallada biografía del P. Donostia, músico capuchino de su total admiración, quien fue además su padrino religioso.

Pero también destacó por impulsar el mejor conocimiento de nuestro cancionero tradicional. Analizó, comparó y puso en limpio todas las melodías recogidas por Resurrección M^a de Azkue que no llegaron a ver la luz en su tiempo, trabajo que está pendiente de publicar. Su implicación en el desarrollo social de la música le conecta con un amplio grupo de entidades: federaciones de coros, Asociación de Compositores, Asociación

de Txistularis, apoyo a la musicología y a la investigación a través de la sección de música de Eusko Ikaskuntza y de la RSAP.

Los años de los reconocimientos oficiales a partir de su jubilación en el año 2000 le hicieron ver el agradecimiento social, institucional y popular a su labor y su figura. El último fue el ofrecido justamente hace un año coincidiendo con la celebración de su 90 aniversario dedicándole una plaza en Errenteria, con la asistencia de la máxima representación institucional vasca con el Lehendakari a la cabeza. El mismo mes asistía al concierto conmemorativo del 50 aniversario de la Coral Andra Mari.

José Luis Ansorena debe formar parte de la conciencia colectiva vasca; su hacer cultural, social y musical ha contribuido a dotar a Euskal Herria de estructuras culturales capaces de llenar algunos de los vacíos causados por la inacción cultural de la posguerra.

Y finalmente habría que destacar la fidelidad a los rasgos desarrollados por el ideal del franciscanismo: su humanismo fraterno con todas las personas, la desposesión de bienes, su tolerancia y la empatía con la naturaleza, concretada en José Luis Ansorena en su querida sierra de Urbasa. Ha fallecido en miércoles, precisamente su día reservado a la semanal visita a Urbasa, un día antes de cumplir su 91 aniversario. Muchas gracias José Luis por toda una vida dedicada a la música, la espiritualidad y la acción social.

Gazte-kemena abesbatza, mende laurden bat kantuan

Iñigo Legorburu

Noiz hasten dira gabonak? Azaroko “Black Friday” entzutetsua igaro eta segituan? Abenduko zubi eta atsedeen egun desiratuen ostean? San Tomas eguna eta hurrengo egun ajetsu horretan? Orereta-Erreterriako (ez hain) gazte talde batentzat, badira jada 25 urte gabonak beste herrikideei baino goizago hasten zaizkigula. Eta bai, badakigu ez gara

bakarrak, baina hurrengo lerro hauetan, azken mende laurden honetan gurea bezalako koru baten joana guk nola bizi izan dugun azaltzen saiatuko gara... azaldu daitezkeen gauzak, bederen!

Argazkia: Iñigo Arizmendi



HISTORIA PIXKA BAT

1994. urtean hasi zen guztia guretzat, kasualitate hutsez. Aurretik, ordea, egun udaleko txistulari bandako zuzendari den Xabier Vesgak, bozkatzeko adinik ez zuela oraindik, bere osaba Josetxo Oliveriren txantxak jasan behar izaten zituen sendiarekin ospatzen zituen bazkalosteetan, “gu zuen adinerako jada hasiak ginen kantuan” errepikatuz, gure Xabier xaxatzen zuelarik. Halako batean, pauso bat aurrera eman eta “gu ere aterako gara aurten” bota zion, osabaren aurretik geldituko zen esperantzaz.

Lehenengo urrats haiek emateko, gelakide izandako edo kuadrilla ezberdinetako jendea deitu, eta guztia martxan jartzeko gai izan zen Xabier. Baina Xabier gazte hura ez zen

edonor ordurako. Oinarri gazte abesbatzako zuzendaria zen eta Errioxa aldean bere taldearekin lehiaketa bat irabazitakoa. Eta gainera, Gipuzkoako koru federazioaren eskutik zuzendaritza klaseak jasotzen hasia zen. Ondoren, 2002. urtean, Euskal Herriko txistulari txapelketan hirugarren postuan gelditu zen gure Xabier, onenekin lehiatu zelarik. Urteek eman diguten ikusmirarekin, esan beharrik ez dago musikarako dohain berezi bat eta jende-multzo bat motibatu eta zuzentzeko erraztasun paregabe bat izan duen sortzaile batekin topo egiteko aukera eta luxua izan dugula taldekideok.

Orereta ikastolaren garrantzia azpimarratzekoa da hasierako urte haietan guztietan. Izan ere, koruko lehenengo belaunaldia, ia bere %100ean ikastolako ikasle izandakoa edo oraindik bertan





Argazkia: Iñigo Legorburu

zabilenak osatu zuelako. Eta hurrengo urteetan ere, gauzak antzeratsu jarraituko zuen: Gaztekemena batez ere Orereta ikastolatik irtendako hainbat belaunaldiz elikatu da, nahiz eta gerora beste hainbat ikastetxe eta herritako lagunak batu zaizkigun. Gure abesbatzaren oihartzuna, Lezo, Antxo, Oiartzun, Pasai Donibane, Donostia edo Iruneraino iritsi da. Bertako herrietako biztanleak jardun dira eta dabilta gure artean oraindik ere.

Larunbat arratsaldeko hasierako entsegu haiek On-bide zinema areto gaineko egoitzetan izan ohi ziren, neguko haize hotza bertako kristal kraskatuetatik sartzen zen bitartean, kantari gogoz aritzen ginela gogoan dugu batek baino gehiagok. Bi ahotsetara ximpleki hasi ginen, eta denboraren poderioz ahots eta aniztasun gehiagoko koro bat osatzen joan gara, eta bidean guztiok ikasi dugu. Etapa hark bost-hamar urteko ibilbidea izan zuen eta anekdota gisa, egun Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun eta politikaria den Denis Itxaso pasaitarra, gurekin ordu asko pasatakoa da kantuan.

Jolasean eta esperimentu gisara hasi zen hura, denboran finkatu eta proiektu itxura hartu zuen. Bigarren saltoa, Andra Mari abesbatzaren

egoitzara salto egin genuenekoan kokatu dezakegu. Bertan, lehenengo urteetako urduritasun eta ziurtasun ezak atzean utzi eta gure ahotsei instrumentu batzuk erantsita (txistua, pianoa...), koro jolastiago eta anitzago bat izatea lortuko genuen.

Bertan urte dexente pasa ostean, Errenteria Musikalen jardutea lortu dugu gure hirugarren eta azken etapa honetan, non 40-50 pertsonaren artean kokatzen den gure partaide kopurua, eta adin aldetik, abaniko zabalago bat dagoen. Tartean, Kukai dantza konpainiako dantzariak eta koreografoa, gure konplize eta taldekide izan ditugula aipatu beharra dago... beti ere kantukide bezala.

NOR GARA GU, ZER GARA GU?

Hitz gutxitan azaltzeko, kantuz jarduteko eta kantuaren aitzakiatan lagunarte eder bat osatzeko biltzen garen jende multzo bat gara. Gutako batzuek musika formazio edo formazio koral garrantzitsu bat duten arren, gehiengo afizioz abesteari ekiten diogunetakoak gara. Helburua, ondo pasatzea eta gabonen bueltan urtero ospatzen den Ereintzaren Gipuzkoako Gabon kanten lehiaketan parte hartzea izaten da eta horregatik, urrian pixkanaka-pixkanaka

elkartzen hasi eta abendu bukaerarako bi kantu ikasiak izaten ditugu; normalean urtero berriak izaten dira. Matematikari finak izan gabe, denbora epe honetan 40-45 kantu ikasiak garelara esan dezakegu, baten bat errepikatu izan dugun arren. Ez da marka txarra gurea bezalako lagun talde batentzat!

Lehen esan bezala, jatorri eta ibilbide ezberdinetako jendeak osatzen du gure abesbatza. Ukaezina da Orereta-Erreteriak betidanik kantuarekiko izan duen zaletasuna, eta horren isla da, adibidez, Landarbaso, Oinarri edo Andra Mari abesbatzek herrian duten edo izan duten atxikimendua. Hiru abesbatza garrantzitsu horietako jendeak ere guregana biltzen jarraitu izan du sortu ginenetik, eta egun; bertako partaide batzuek gurean diraute.

Afizioa eta jolasa aipatu ditugun arren, lehiaketaren egunean gure onena ematea izaten dugu helburu. Hiru hilabetetan zehar egindako ahaleginak egun horretan bere

fruitua eman dezan amesten dugu, guk eta polikiroldegira hurbiltzen diren entzule finek elkarrekin gozatu dezagun. Sailkapenean gehiegi tematu gabe, gure buruen aurka lehiatzen gara gu, ahalik eta aho zapore onena utzi nahian gerontzat, gure buruei eta entzuleei errespetu hori zor diegulako.

Gure buruari ahalik eta gehien eskatu eta hura zukutzea maite dugu eta horren ondorioz, emaitza ederrak lortu izan ditugu mende laurden honen joanean. Ez gara oso abilak suertatu gure sailkapen eta ohorezko postuen kontua eramateko garaian (bide batez, gehiegi axola ez digun seinale), baina bi edo hiru garaipenen jabe egin izan gara urte hauetan guztietan, eta baita bigarren postu ugari lortu ere. Lehenengo lau sailkatuen artean egoteko ohorea are eta gehiagotan lortu izan dugu, baina dietarekin soilik konformatu behar izan garen urteak ere dexente egon dira. Horixe ba, sailkapenari begira une gazi-gozoak bizi izan ditugula, beste koru guztiek bezala.





Argazkia: Iñigo Legorburu

Aipatzekoa da baita ere lehiaketaren ostean urtero-urtero ospatzen dugun afaria. Kiroldegiko saioa egin eta tradizioak agintzen duen bezala Mikelazulon gure abestiak berriro abestu ostean, giro ederrean eta lagunez inguratuta, hiru hilabetetan zehar egindako lanaren ostean, gure buruari eskaintzen diogun oparitxoa da afari hori. Gau horretan, afariak eta afalosteko kantu eta barre-algarek luze jotzen dute eta ordu txikiak handitzen hasten direnerako, oraindik parrandan jarraitzen dugu gutako askok, herriko hainbat tabernatan zehar. Urteko egutegian gorriz markatuta datorkigun eguna da urteko azkeneko larunbat hori, parrandarako gordetzen duguna gure eta beste abesbatzetako jende ugari.

Eta lotsarik gabe esan dezakegu ordu txikietan gure kantu eta dantzak maila handia mantentzen jarraitzen dutela, hurrengo eguneko gerriko min eta marrantek gogorarazten diguten bezala.

NOLA ALDATU GAREN...

Lehenagoak izaten jarraitzen dugu, baina ez gara lehenago berdinak.

Horrela laburbildu dezakegu gure izena eta izana. Gazte-kemena izenari men eginez, oraindik ere gazteen izpiritua mantentzen jarraitzen dugu. Gutako asko, nerabe garaiko azken urteetan hasi ginenok, jada berrogei urteen bueltan gabiltza egun, baina, oro har,

hasiera hartatik dirauen talde indartsu bat da gure koruaren funtsa.

Joan-etorriak egon direla eta egongo direla, ondtxo dakigu. Nerabegaraietako aisialdi ordu amaiezin haiek ahaztu, eta egun, denok lan egin, ikasi, familia bat izan eta antzeko beste mila konpromezu pilatu ditugu. Eta egungo bizitza erritmo azkarrarekin, sarri ez da erraza izaten gure hitzordu eta entseguetarako denborarik ateratzea. Soilik, gure burugogorkeriak eta jada gure bizitzetan tradizio bilakatu den ekintza batean parte hartzeak, eramaten gaitu urtero-urtero berriro bildu eta ahalegintzera. Zoritxarrez, gure ibilbidean ikusi ditugu bide motzagoa izan duten hainbat koru, partaide faltagatik euren bidea nahi baino azkarrago amaitu behar izan dutenak.

Lehiaketa bera ere aldatu denaren testigu zuzenak izan gara. Hasierako urteetan Yosu musika dendara gure zuzendariak egiten zituen presazko bisita haiek ahaztezinak zaizkigu: *soilik* dozena bat talderentzat egoten zen lekua garai haietan, eta lehenengo egunean apuntatu ezean, tokirik gabe gelditzen zen abesbatza. Abesbatzak, herri eta lurraldeko txoko ezberdinetatik etortzen ziren urteak ziren. Baina beste aldeia ere ezagutu dugu, lehiaketan juxtu-juxtu bost taldek parte hartu izan dutenetakoa.

Arauetan ere gorabeherak izan dira, lehen abesbatza bakoitzeko hiru partaidetatik, soilik

bakarra izan zitekeelako federatua, lehiaketa herrikoia baita. Azken urteetan, partaidetza handitzeko asmoz, arau hori bertan behera utzi du antolakuntzak eta egun, abesbatzak nahi bezala osatu ahal dira. Eta horrek gurea bezalako koru herrikoientzat zailtasunak ekarri dizkigu sailkapen hobea bat lortzeko orduan. Izan ere, formazio handiko partaideak dituzten herritik kanpoko koruak ugaritu egin dira azken urte hauetan, eta mailak gora egin duela ukatzerik ez dago. Baina gurea bezalako koru herrikoiekin arrakala bat sortu da.

Guk ere, gure formazioan gauza batzuk aldatu ditugu. Azken urteetan, ardura guztia Xabier Vesgak hartzen jarraitzen duen arren, Landarbaso abesbatzako Iñaki Tolaretxipiren *master class* batzuk jasotzen ditugu tarteka. Tolaretxipiren metodologia bereziak, frex-kotasuna eta maila ematen dio gurea bezalako talde bati. Gure jardunarentzat, konplementu berezia izaten da halako maisutasun eta intentsitatearekin klaseak ematen dituen Tolaretxipirekin bere jakintza eta praktika guztia partekatzea. Horretaz gain, Aitor Albisturrek, gure koruko kide dena lehenengo urtetik eta bertsolari apartak, azkeneko urte hauetan zenbait gabon abestiren letrak idatzi eta moldatu dizkigu, abesteko errazagoak izan daitezzen.

IZENAK ETA IZANAK

Anekdotak, gertakizun eta abentura ugari zerrendatu genitzake mende laurden bateko bidea ospatzea helburu duen artikulu honetan, baina jada amaitze aldera, soilik bi izen aipatuko ditugu.

Bata, Eneko Arcelus gure taldekide izandakoarena da. Mutil jator eta ixila, lagunena laguna eta gaitasun fisiko izugarri baten jabea (eskiatzen eta bizikleta gainean, oso trebea). Hasierako urteetatik gurekin jardun zen, ahalik eta 2003. urteko azaroan Heriok berekin eramane zuen arte Lasarte-Oriako errepidean

gertatutako istripu malapartatu baten ondorioz. 27 urte besterik ez zituen, artean.

Eta bestea, zalantzarik gabe, Xabier Vesgarena da. Urtero-urtero gure proiektuaren zutabe nagusia, bere eguneroko bizitzako mila arduraren artean, Gazte-kemena koruari leku bat egiten asmatu izan duena urte hauetan guztietan zehar. Abestiak aukeratu, jendeari hots egin, koruari forma eman, lehiaketa osteko afariaren koordinazioaz arduratu... Bere ahalegina eta presentziarik gabe ezinezkoa izango zen hau guztia, eta, beraz, hemendik doakio gure esker ona eta aitortza.

Hasierako galderari erantzunez (“noiz hasten dira gabonak?”), gutako askorentzat uztailean hasten direla aitortu beharko dugu. Orduan, madalenetako *Centenario* eta *Txunpa-txunpa* doinuen artean eta eguzki galdatan, Xabier Vesga irribarretsua, gugana hurbiltzen delarik, belarri zulora “aurtengo bi abestiak erabaki ditut” xuxurlatuko digu, eta orduan jakingo dugu aurten ere Gazte-kemena hor izango dela gabon abesti lehiaketan.

Kemenak, gure kemenak, gazte izaten jarraitzen duelako.

DOINUA: Habanera (X. Lete)

*Konturatu ordurako
joan da mende laurdena
ta zenbat aldatu garen
urte hauetan barrena!
Hasieran bizitako
urduritasun gorena
ahaztu ostean etorri
da gerora, garaipena.
Urtero bizi ohi dugun
poza eta zoramena
da berriz lagun artean
gogoz elkartzearena...
Ematen jarrai dezagun
denok, barruko onena
gure bizitzan zati bat
delako Gazte-kemena.*

Errenteria disfruta del boxeo con su campeón Sebastián “Látigo” Pérez

José Ángel Rodríguez Medina

Desde la humildad y con un trabajo diario y un esfuerzo constante, el club de boxeo de Errenteria LÁTIGO BOXING TEAM es actualmente una referencia en el boxeo de Gipuzkoa y más allá de nuestras mugas.

Errenteria tiene buena salud deportiva, tanto en clubes de modalidad colectiva como individual, muchos de ellos, con buenos historiales en su bagaje deportivo y con muchos años compitiendo a nivel aficionado o profesional.

Errenteria (polideportivo Galtzaraborda). Combate por la unificación de cinturones de España y Unión Europea. Kako Barreto y Sebas “Látigo” Pérez. 7 de octubre de 2018.





Sr. Pérez y Sebas "Látigo" Pérez. 2019.

Esa buena salud se nota en el boxeo, deporte que ha pasado unos años desapercibido y que vuelve con fuerza gracias a un chaval del barrio de Beraun que se ha empeñado en no pasar por la vida sin llamar la atención, o por lo menos, sin que su trabajo, esfuerzo y sacrificio sea reconocido. Se llama Sebastián Pérez Garrido alias "Látigo" (03-05-1996) y, aunque su apariencia no llame la atención, en el ring se transforma en una máquina de trabajar y atrae todas las miradas. Según los entendidos su postura boxística es ortodoxa.

Pero antes hay que hablar de su otra mitad. Nada más y nada menos que su padre Sebastián Pérez, halterista, recordman de Gipuzkoa y de Euskadi, deporte que complementaba con entrenamientos de boxeo, aficionando con ello a su entorno más cercano. Ha sido también, pintor, barrendero, chofer internacional y en ruta, camarero, feriante... Todo aquello que sirviera para caminar con la cabeza alta por la vida.

